

HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua
Ikasturtea: 2019-2020

**DBH 2. MAILAKO GORPUTZ HEZKUNTZAKO
IRAKASGAIAN EUSKARAZKO AHOZKO KOMUNIKAZIOA
LANTZEKO PROPOSAMEN DIDAKTIKOA**

EGILEA: Goñi Houghton, Alvaro

ZUZENDARIA: Garcia Azkoaga, Ines Maria

Vitoria-Gasteiz, 2020eko maiatzaren 20a

LABURPENA

Gradu Amaierako Lan honen helburua da Gorputz Hezkuntzako irakasgaien hizkuntza komunikaziorako gaitasuna nola landu daitekeen aztertzea. Horretarako, Nafarroako Foru Komunitateko testuinguru soziolinguistiko berezia aztertu eta kontuan hartuko da, ikerketa Nafarroako eremu misto eta eremu ez-euskaldunean kokatuko delarik. Eremu horietan euskarak eskolatik at duen presentzia nahiko txikia da eta horren ondorioz, ikasleek hizkuntza hau egoera informaletan erabiltzeko aukera gutxi izaten dituzte. Era berean, hizkuntzaren ahozkotatasunaren lanketan Gorputz Hezkuntzak dituen aukera ezin hobeak nabarmenduko ditugu eta horren ondorioz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasgai honetan esparru hau lantzeko proposamen didaktiko bat sortuko dugu. Proposamen hau proiektuka lan egiteko metodologian oinarrituko da eta ahozkotatasunaren bi norabideak lantzeko beharra hartuko du kontuan: hizkuntzaren alderdi formala eta informala. Beraz, lan hau tresna metodologikoa izan daiteke euren programazioetan hizkuntza gaitasuna lantzea erabakitzen duten Gorputz Hezkuntzako irakasleentzat.

Hitz gakoak: *Nafarroako egoera soziolinguistikoa, euskara, ahozko komunikazioa, proiektuka lan egiteko metodologia, hizkuntzaren alderdi formala/informala, hizkuntza gaitasunak Gorputz Hezkuntzan.*

RESUMEN

El propósito del presente Trabajo de Fin de Grado es analizar cómo trabajar la Competencia para la Comunicación Lingüística en la asignatura de Educación Física. Para ello, se analizará y se tomará en cuenta el especial contexto sociolingüístico que presenta la comunidad Foral de Navarra, al mismo tiempo que el estudio se concretará en las zonas mixta y no-vascófona de este territorio. En esas zonas la presencia del euskera fuera de las escuelas es bastante pequeña y por ello, la mayoría de los/as alumnos/as suelen tener pocas posibilidades de utilizar el idioma en situaciones informales. Al mismo tiempo, destacaremos las inmejorables opciones que tiene la asignatura de Educación Física para el trabajo de la oralidad del euskera y en consecuencia, realizaremos una propuesta didáctica para trabajar este aspecto durante la etapa de la ESO en esta asignatura. Esta propuesta se basará en la metodología de trabajo por proyectos y tomará en cuenta la necesidad de trabajar en las dos vertientes de la capacidad oral: el lenguaje formal e informal del idioma. Por lo tanto, este trabajo puede servir de herramienta metodológica para aquellos/as profesores/a de Educación Física que decidan incluir en sus programaciones un trabajo real de la competencia lingüística.

Palabras clave: *situación sociolingüística de Navarra, euskara, comunicación oral, metodología de trabajo por proyectos, lenguaje formal/informal, competencias lingüísticas en Educación Física.*

ABSTRACT

The aim of this end-of-degree project is to analyse how to work the competence of the linguistic communication in the Physical Education subject. To do so, the special sociolinguistic context of the Foral region of Navarre will be analysed along with the study of both the mix-speaking and non-Basque speaking areas of Navarre. In these areas the use of Basque outside school is little so many students do not have the opportunities to use the language in informal contexts. At the same time, we must stand out that PE offers great possibilities to work the oral skill at school. Therefore, we are going to put forward a didactic proposal to work this competence during the Secondary Education. This proposal will focused on a project-work methodology and either the formal or the informal aspects of the oral competence will be taken into account. In consequence, this study will be useful as a methodological tool for the PE teachers who want to include in their curriculums the linguistic competence.

Keywords: Navarre's socio-linguistic situation, Basque, oral communication, project-work methodology, formal/informal language, linguistics competences in Physical Education.

AURKIBIDEA

1.	SARRERA	4
2.	JUSTIFIKAZIOA.....	5
3.	HELBURUAK	7
4.	MARKO TEORIKOA.....	8
4.1.	Nafarroako egoera soziolinguistikoa.....	8
4.2.	Nafarroako Hizkuntza-ereduak	9
4.3.	Euskararen egoera Nafarroan	10
4.3.1.	HIZKUNTZA GAITASUNA.....	10
4.3.2.	ERABILERA.....	11
4.3.3.	EUSKARAREKIKO JARRERA	11
4.4.	Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculuma eta Hizkuntza Komunikazioa	12
4.5.	Proiektuka lan egiteko metodologia	14
4.6.	Gorputz Hezkuntzako irakasgaia DBHn	15
4.6.1.	Gorputz Hezkuntza ikaslearen garapen integrala lantzeko erraminta gisa.....	15
4.6.2.	Gorputz Hezkuntza hizkuntza komunikaziorako gaitasuna lantzeko erraminta gisa	17
4.7.	Ahozko komunikazioa.....	18
4.7.1.	Ahozko komunikazioa Curriculumean.....	18
4.7.2.	Ahozko komunikazioa gure eskolan	20
4.7.3.	Ahozko komunikazioa Gorputz Hezkuntzan.....	21
5.	METODOA.....	22
5.1.	Azterketaren kokapena: testuinguru soziolinguistikoa eta DBHko etapa/maila	22
5.2.	Ikastetxe bateko Gorputz Hezkuntzako helburu orokorren, gaitasunen eta edukien analisia	23
5.3.	Ikastetxe bateko Gorputz Hezkuntzako programazioaren analisia: DBH 2. maila	24
6.	EMAITZAK	27
6.1.	Proposamen didaktikoaren egitura orokorra	27
6.2.	Hizkuntza eta komunikazio irizpideak Gorputz Hezkuntzako irakasgaian	28
6.3.	Proiektuka lan egiteko metodologiaren bidezko proposamen didaktikoa	29
6.3.1.	Proiektuaren aurkezpena eta hiztegi espezifikoaren sorrera.....	29
6.3.2.	Gorputz Hezkuntzan ahozko komunikazioaren alderdi informala lantzeko estrategiak	30
6.3.3.	Gorputz Hezkuntzan ahozko komunikazioaren alderdi formala lantzeko estrategiak	32
7.	ONDORIOAK.....	34
8.	HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	36
9.	BIBLIOGRAFIA.....	37
	ERANSKINAK.....	39

1. SARRERA

Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako graduak kokatzen den lan baten aurrean gaude, Vitoria-Gasteizko Hezkuntza eta Kirol fakultatean gauzatu dena. Gradu Amaierako Lana graduaren azken urtean (4. urtean) egiten da eta 6 kredituko irakasgaitzat hartzen da. Bolonia planaz geroztik, unibertsitateko gradu guztietan lan hau derrigorrezkoa bihurtu da eta haren helburua da graduko ikaskuntza aldiari jasotako prestakuntza edukiak, ahalmenak, gaitasunak eta trebetasunak erakustea eta garatzea.

Hizkuntzaren ikaskuntza izen bereko irakasgaira mugatuta egon da beti. Horren ondorioz, gure ikastetxeetan, euskararen ikaskuntza egunean irakasgai batera mugatuta gelditzen da, euskarazko irakasgaira, alegia. Curriculumean, aldiz, hizkuntza komunikazioa irakasgai guztietan landu beharreko oinarriko gaitasuntzat hartzen da, hizkuntzaren lanketaren erantzukizuna irakasgai guztietara zabalduz. Ikerketa askok (besteak beste, Coelho, 2008; Escribano, 2008; Larraz, 2008 eta Plazaola, 2010) adierazten dute Gorputz Hezkuntzan aukera paregabeak ematen direla hizkuntza lantzeko. Hala ere, horrek aldaketa nagusi bat ekarriko lieke Gorputz Hezkuntzako irakasleei: eduki bakarra (jokabide motorra) landu beharrean, bi ikaste-objektu izango lirateke irakasgaiaren saioetan aurkituko liratekeenak: jokabide motorra eta hizkuntzaren lanketa (Fernandez, 2014).

Hala ere, hezkuntzako irakasgai guztietan hizkuntza lantzeko beharra ezin da ulertu gure testuinguruaren azterketa espezifiko bat egin gabe. Izan ere, euskararen presentzia eta erabilera txikia den zonaldeetan ikasleek zailtasun gehiago dituzte euskararen ikaskuntza egoki bat bereganatzeko. Horren adibide garbiak dira Nafarroako eremu mistoa (Iruñerria eta Nafarroako erdialdea) zein eremu ez-euskalduna (Erribera eta Nafarroako hegoaldea). Eremu hauetan D ereduan ikasi dugun ikasle gehienontzat, euskararen erabilera esparru akademikora mugatuta egon da beti eta gaztelania izan da etxean zein kalean (lagunekin) erabili dugun hizkuntza bakarra. Horren ondorioz, ikasle askok euskararen ikaskuntzan zailtasunak izaten dituzte eta kasu hauetan, euskara maitatu beharrean, gorrotatu egiten dute.

Egoera hori iraultzeko daukagun baliabide nagusia hezkuntza da. Hortaz, Gorputz Hezkuntza, zein eskolako beste irakasgai guztiak, hizkuntza gaitasuna landu beharko lukete, ikasleek euskarazko ikaskuntza egoki eta eraginkor bat jaso dezaten. Hori lortuta, ikasleek euskara erabiltzeko motibazioa berreskuratu eta hizkuntza honekin berriz identifikatuko direlaren esperantza daukat. Lan honek soilik tresna izan nahi du helburu horretan laguntzeko.

2. JUSTIFIKAZIOA

Hizkuntza hezkuntza-sistemaren ardatza da, ikaskuntzak eraikitzeke daukagun bitartekorik nagusia delako. Horren ondorioz, arrunta izango litzateke hizkuntzaren ikaskuntza edozein irakasgaitan aurkitzea, baina gaur egun hori ez da horrela. Aurreko puntuan aipatu dugun moduan, hizkuntza izen bereko irakasgaira mugatuta dago oraindik, beste irakasgai guztietan haren ikaskuntza bultzatzen eta arautzen ez delarik.

Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculumak bat egiten du goian aipatutakoarekin, Hizkuntza Komunikazioa etapa guztietan zehar landu beharreko oinarrizko gaitasuntzat hartzen baitu. Izan ere, curriculumak hizkuntza komunikaziorako gaitasuna gainerako gaitasunak eskuratzeko ezinbesteko faktorea dela ondorioztatzen du eta horren ondorioz, haren lanketa eta garapena etapako irakasgai guztietara zabaltzen du (Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculumak, 2015: 4-5).

Gutxi izango balitz bezala, gure eskoletan hizkuntza idatziari eskaintzen zaio leku nagusia, ahozko hizkuntza alboratuz. Horren lanketa irakasleak egiten dituen galderei erantzutera eta ahozko aurkezpen formalak egitera mugatuta gelditzen da gehienetan, eta ahozkotasanaren alderdi formala lantzeko balio dute. Alderdi informalean irakaskuntza, berriz, ez du lekurik eta, horren ondorioz, ikasleak euskarazko bat-bateko egoerei aurre egiteko gaitasun gutxiago izaten dute. Horrek ikasleen euskararen ezagutza mugatzen du, hizkuntza bat erabiltzeko ematen diren egoera informalak (famielarekin, lagunekin, etab.) askoz gehiago direlako egoera formalak baino. Horren ondorioz, ikasle horiek euskara eskolatik kanpo (egoera informalean) erabiltzeko izan dezaketen motibazioan eragin negatiboa izan dezake.

Gorputz Hezkuntzako saioetan gertatzen diren hizkuntza egoerak ez dira behatzen beste irakasgai gehienetan eta hori da, hain zuzen ere, irakasgai honek hizkuntza komunikaziorako gaitasuna lantzeko duen arrazoirik garrantzitsua. Izan ere, Gorputz Hezkuntzan, beste irakasgai gehienetan ez bezala, egoera informalean adibideak nonahi daude, eta horiek erabiltzea aukera paregabea izan daiteke ikasleen ahozkotasanaren esparru hau lantzeko. Hala ere, ezin dugu ahaztu Gorputz Hezkuntzako saioetan egoera formalean presentzia daukagula ere (Garcia-Azkoaga, Bengoetxea eta Zabala, argitaratze prozesuan).

Estrategia hau ezartzeko beharra areagotzen da Nafarroako testuinguruari erreparatzen badiogu. Izan ere, 1986ko Euskararen Foru Legearen geroztik Nafarroako lurraldea hiru eremu linguistiko ezberdinetan banatuta dago: eremu euskalduna, eremu mistoa eta eremu ez-euskalduna. Eremu euskaldunean, Nafarroako iparraldea hartzen duena, euskarak presentzia handia dauka eta bertako biztanleria gehiena euskalduna da. Eremu mistoan (Iruñerria eta Nafarroako erdialdea) eta eremu ez-euskaldunean (Nafarroako hegoaldea), berriz, euskararen presentzia dezente apalagoa da.

Lehenago aipatu dugun moduan, eskolatik kanpo hizkuntza bat erabiltzeko aukerarik ez badago, modu negatiboan eragin dezake ikaslearen hizkuntza-gaitasunean eta hizkuntza hura erabiltzeko motibazioan. Hortaz, irtenbideak aurkitu behar dira Nafarroako eremu mistoko eta eremu ez-euskalduneko ikasleak esperientzia hori bizi ez dezaten. Helburu horren lanketan, logikoa da pentsatzea Gorputz Hezkuntza konponbidearen parte izan daitekeela, ikaslearen eskolaz kanpoko bizitza errealetik gertuago dagoen eta ikasleei gehienei gehien motibatzen dien irakasgaia baita (besteak beste, Abreu, 2010; Fernandez-Barrionuevo, 2011 eta Ramos eta Ruiz Omeñaca, 2011; in Fernandez, 2010), ikaslearen garapen integralaren lorpenerako eskaintzen dituen aukera ugarietz aparte.

Horren guztiaren ondorioz, mota honetako galderak agertzen dira: hizkuntzaren lanketak ba al du lekurik Gorputz Hezkuntzako irakasgaiari? Erantzuna baiezkoa izatekotan, zein paper jotzen du gaur egun irakasgaiari eta irakasleen programazioari? Ze esparru indartu beharko litzateke gehiago, hizkuntzaren alderdi formala ala informala? Nolako aukerak sortu behar dira eskolan ahozko komunikazioa lantzeko? Gradu Amaierako Lan (GrAL hemendik aurrera) honetan zehar, galdera horiei eta beste batzuei erantzuna ematen saiatuko naiz.

3. HELBURUAK

Gradu Amaierako Lan honen helburu nagusia da Gorputz Hezkuntzako irakasgaian hizkuntza komunikaziorako gaitasuna nola landu daitekeen aztertzea. Horretarako, bi aztergai izango ditugu: alde batetik, Nafarroako testuinguruaren azterketa gauzatuko da, eremu honetako ikasleen premia eta beharrak zeintzuk diren identifikatzeko eta horren arabera, estrategia metodologiko egoki bat aurrera eramateko; beste aldetik, Gorputz Hezkuntzako irakasgaian hizkuntza komunikaziorako gaitasuna lantzeko proposamen didaktiko bat prestatuko da.

Proposatutako azterketa hipotesi zehatz baten inguruan abiatzen dut: *Gorputz Hezkuntzan ez direla aintzat hartzen komunikazio-gaitasunak, nahiz eta horretarako aukera eta testuinguru aproposa duen irakasgai honek*. Gainera, esparru hau zailtasun berezirik gabe txerta daitekeela frogatzen saiatuko naiz, kontutan hartuz, gainera, hori dela curriculumak eskatzen duena eta hezkuntza eleaniztunak beharko lukeena.

Izan ere, hizkuntzen ikaskuntza hizkuntza-irakasgaietara (“euskara”, “gaztelania”, “atzerriko hizkuntza”...) mugatuta dago gaur egun, beste irakasgaietan esparru hau lantzen ez delarik. Horrela, gaur egun D ereduko ikastetxeetan euskaren ikaskuntzaren erantzukizuna izen bereko irakasgaira (“euskara”) mugatuta gelditu da eta horren ondorioz, beste irakasgaietako irakasleek ez dituzte burutzen esparru hau lantzeko jarduerarik edo ekintzarik.

Horrela, Gorputz Hezkuntzako irakasleek aukera ezin hobe galtzen ari dute ikasleen euskararen jabekuntzari laguntzeko, irakasgai honetan egoera ugari ematen direlako ahozkotasanaren alderdi informala lantzeko. Izan ere, irakasgai honetan gertatzen dira beste irakasgaietan behatzen ez diren egoera diskurtsiboak, esate baterako, jolasak eta kirolak praktikatzearen ondorioz gertatzen direnak: estrategiak adostu, lagunak animatu, ikasleen arteko bat-bateko elkarrizketak...

Irakasgai honek eskaintzen duen aukera hura aprobetxatzea are garrantzitsuagoa bihurtzen da euskara hizkuntza nagusia ez den eremu horietan, hala nola, Nafarroako eremu misto eta eremu ez-euskalduna. ikasleek euskararen jabekuntza pobregoa lortzen dutelarik. Izan ere, eremu horretako ikasleek zailtasun gehiago izaten dituzte euskararen jabekuntza on bat lortzeko, eskolatik at hizkuntza horrek duen presentzia oso txikia delako. Horren ondorioz, ikasle horiek egoera informalei aurre egiterakoan aurkituko dituzte zailtasun handienak, hizkuntzaren esparru hori delako eskolak eskaintzen ez duena eta klasetik kanpo adibide gehien dituena (lagunekin, familiarekin...). Egoera horiek dira, hain zuzen, Gorputz Hezkuntzako irakasgaian gehien ematen direnak eta gehien landu daitezkeenak.

Gradu Amaierako Lan honetan aipatutako hipotesia betetzen den aztertuko dut ondorengo ataletan, horretarako beharrezkoa den marko teorikoa aurkeztuz eta egoera horri konponbidea bilatzen saiatuko dion proposamen didaktiko bat burutuz.

4. MARKO TEORIKOA

4.1. Nafarroako egoera soziolinguistikoa

1978ko espainiar Konstituzioak Nafarroako eskubide historikoak babesten eta errespetatzen ditu eta horren ondorioz, Nafarroako Foru Komunitateak (Euskal Autonomi Erkidegoak bezala) zenbait esparrutan autonomia guztia dauka nahi duen politika aplikatzeko. Hezkuntza- eta hizkuntza-politikaren esparruak dira horietako bi, lan honetan zehar aztertuko dugun eremua, hain zuzen.

1982. urtean Nafarroako Parlamentuak *Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeagotzeko Lege Organikoa* (NFEBHLO) (Nafarroako Gobernua) sortu egin zuen, esparru linguistikoan hurrengo ezartzen duena:

9. artikulua - 1. “Gaztelania da Nafarroako hizkuntza ofiziala”. 2. Euskarak ere hizkuntza ofizialaren maila izanen du Nafarroako eskualde euskaldunetan. Foru lege batek eskualde horiek zehaztu, euskararen erabilera ofiziala arautu eta, [...], hizkuntza horren irakaskuntza antolatuko du (I.V.A.P., 1986: 21).

Nafarroako politika linguistikoa arautzeko 1986. urteko abenduaren 15ean “Euskararen Foru Legea” sortu eta onartu egin zen, hurrengo xedatzen duena:

2. artikulua. 1. *Gaztelania eta euskara Nafarroako hizkuntza berekiak dira eta, horren ondorioz, herritar guztiek dute jakin eta erabiltzeko eskubidea.* 2. *Gaztelania da Nafarroako hizkuntza ofiziala. Baita euskara ere NFEBHLOren 9. artikuluan eta Foru Lege honetakoetan aurreikusitako eran.*

5. artikulua. 1. *Foru lege honen ondorioetarako, Nafarroak honako eremu hauek ditu:*

- a) *Eremu euskalduna: ipar Nafarroako udalerriek osatua. [...]*
- b) *Eremu mistoa: Iruñerria eta Nafarroako erdialdeko udalerriek osatua. [...]*
- c) *Eremu ez-euskalduna: Nafarroako erriberako eta hegoaldeko udalerriek osatua. [...]*

Beraz, Foru Legeak Nafarroa hiru hizkuntza-eremutan zatitzen du: euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna. Lehenengoan euskara ofiziala da gaur egun eta biztanleria gutxien duen eremua da: nafarren %11 bizi da eta ez dago 10.000 biztanle baino gehiagoko herririk (Oroz eta Sotes, 2008; in Manterola, 2010). Eremu mistoan euskararen ofizialtasuna ez da erabatekoa, baina euskal hiztun gehien biltzen dituen da eta aldi berean, euskaldunen gorakada handiena izan duena ere. Eremu ez-euskaldunean Nafarroako biztanleen %37 bizi da, euskaldunen kopuru txikiena duelarik. Bertan euskara ez da ofiziala (Agirreazkuenaga eta Prieto, 2009).

4.2. Nafarroako Hizkuntza-ereduak

Aurreko puntuan ikusitako zonifikazio linguistikoak hizkuntza-politikaren esparruan ondorio batzuk dakartza, hala nola, Nafarroako herritarrek haien seme-alabak eskolatzeko dituzten aukerak baldintzatzen dituela. Horren harira, Nafarroako Euskararen Foru Legeak ondorengo hizkuntza-ereduak ezartzen ditu (Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua):

- * **A eredia:** Gaztelaniazko irakaskuntza da, euskara irakasgaiarekin, maila, etapa eta modalitate guztietan.
- * **B eredia:** Euskara eta gaztelaniazko irakaskuntzan oinarritzen da eta hizkuntza bakoitzean emandakoaren portzentajea ikastetxeak erabakitzen du.
- * **D eredia:** Euskarazko irakaskuntzan oinarritzen da, gaztelania irakasgaitzat hartuta.
- * **G eredia:** Irakaskuntza guztia gaztelania hutsez egiten da, euskara irakasgai gabe.

Eredu horietaz gain, azken urteotan sortutako ingeleseko ereduak eragin zuzena izan dute euskarazko ereduaren matrikulazioaren beherakadan, bereziki eremu mistoan eta ez-euskaldunean. Haien presentzia eta garrantzia gero eta handiago da Nafarroako lurraldean, hauen adibideak “British” eta “Hizkuntzen Tratamendu Integratua” (HTI) ereduak direlarik.

Nafarroako 4/2015 Foru Legearen arabera, 2015eko martxoaren 10ekoa, 18/1986 Euskararen Foru Legeak hein batean aldatzen duena, eremu bakoitzerako hizkuntza-eredu hauek baimentzen ditu:

- **Eremu euskalduna:** A, B eta D ereduak.
- **Eremu mistoa:** A, B, D eta G ereduak.
- **Eremu ez-euskalduna:** A eta G ereduak sare publikoan baimentzen dira eta D eredia itunpeko ikastoletan.

Ondorioz, nabarmentzekoa da Euskararen Foru Legearen arabera, gaztelaniaren ikaskuntza lurralde guztira hedatzen den bitartean, soilik eremu euskaldunean dela ezinbestekoa euskararen irakaskuntza, umea matrikulatuta dagoen eredia (A, B edo D) edozein izanda ere. Eremu mistoko gurasoek haien seme-alabak nahi duten ereduaren matrikulatzeko aukera daukate, baita euskararen presentziarik ez duen G ereduaren. Azkenik, eremu ez-euskaldunean –Nafarroako erribera eta hegoaldea– ez da euskarazko irakaskuntzarik eskaintzen sare publikoan. Aukera dago A ereduaren euskara irakasgai bezala ikasteko, ikasleek eskatzen badute eta gutxieneko ikasle-kopurua betetzen bada (Agirreazkuenaga eta Prieto, 2009).

Nafarroan euskararen presentziarik ez duen G ereduak, onarpen handia izan du Nafarroako gizartean (Etxebarria, 2015), eremu ez-euskaldunean nagusi delarik (%63). Euskal Autonomi Erkidegoan (EAE

hemendik aurrera) eta Ipar Euskal Herrian, berriz, ez da aurkitzen eredu honen parekiderik eta euskarazko ikaskuntza bere lurralde osoan bermatuta dago. D ereduak eremuka daukan onarpena aztertuta, ezberdintasun handiak daudela ikus dezakegu: eremu euskalduna da eredu honetako ikasle gehien dituen (%85), eremu mistoan %28 eta eremu ez-euskaldunean %3 (2006, in Manterola, 2010). Dena dela, eremu ez-euskalduneko sare publikoan D eredia eskaintzen ez denez, aurkeztutako datuek ez dituzte aintzat hartzen ikastoletako ikasleen kopurua. Oroz eta Sotesen (2008; in Manterola, 2010) arabera, ikaslegoaren %6a inguru izango da D ereduan matrikulatuta dagoena. Bukatzeko, Nafarroako hezkuntza-sistema publikoan euskarak duen egoera ulertzeko esanguratsua den datu bat nabarmentzea beharrezkoa da: Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) Euskararen Normalkuntza Planik gabe jarraitzen du gaur egun (Etxebarria, 2015).

Beraz, agerian gelditzen da EAEren eta Nafarroako Foro Komunitatearen arteko aldea euskararen irakaskuntzarako legediari dagokionez: Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan euskaraz ikasteko eskubidea lurralde osora hedatzen den bitartean, Nafarroan soilik eremu euskaldunera mugatzen da, populazio gutxien duen eremura, alegia (Manterola, 2010).

4.3. Euskararen egoera Nafarroan

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bost urtean behin Inkesta Soziolinguistiko bat gauzatzen du lurralde euskaldunetan (Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritza eta Euskararen Erakunde Publikoa, 2017). Hortaz, erakunde horrek egindako azken inkesta 2016. urtekoa da, VI. Inkesta Soziolinguistikoa, alegia. Aurrerantzean aztertuko diren datuak inkesta horretatik atera dira, baina aldi berean inkesta ezberdinetako emaitzak kontuan hartu dira, azken 25 urteotan Nafarroako emaitzen bilakaera nolakoa izan den jakiteko. Datuetan sartu aurretik aipatu beharra dago inkestak kanpo uzten duela hamabost urtetik beherako biztanleria. Datu hori azpimarragarria da Nafarroako euskaldun kopuru altueneko adin taldea horixe delako.

4.3.1. HIZKUNTZA GAITASUNA

Nafarroako elebidun kopuruari dagokionez, VI. Inkesta Soziolinguistikoak datu hauek eskaintzen ditu: 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren %12,9 euskara-gaztelania elebiduna da, %10,3 elebidun pasiboa (ulertu baina erabiltzen ez dutenak) eta %76,7 gaztelaniaduna. Nafarroako elebidun kopuruak gora egin du azken 25 urteetako datuekin alderatuta, 1991n %9,5 baitziren (3,4 puntuko igoera). Nafarroako zonifikazioari begiratuta, eremu mistoa da euskaldunen gorakada handiena izan duena, eremu euskaldunean eta ez-euskaldunean eman diren igoerak txikiagoak izan direlarik. Hala ere, euskaraz hitz

egiten den gainontzeko lurraldeen elebidunen kopurua Nafarroakoa baino handiagoa izaten jarraitzen du: EAEn biztanleriaren %32 elebiduna da eta Ipar Euskal Herrian %21,4.

Bukatzeko, nafartarren %9,3k euskara dute ama-hizkuntzatzat, gainerako %90,7k gaztelania edo beste hizkuntza bat dutelarik. Datu horiek garrantzitsuak dira Nafarroako euskal hiztunen profila ulertzeko, 16-24 eta 25-34 urte bitarteko euskaldunen erdia baino gehiago (%58 inguru) euskaldun berriak direlako. Hortaz, gaztelania da zalantzarik gabe Nafarroako populazioaren hizkuntza nagusia: biztanleriaren %12k euren burua gai ikusten dute euskaraz modu egokian hitz egiteko, irakurtzeko, idazteko edo, behintzat, ulertzeko. Aldiz, ia biztanleria osoa gai da ekintza berdinak gaztelaniaz egiteko (%98) (Sancho, 2013).

4.3.2. ERABILERA

Aurrerantzean emango diren datuak oso garrantzitsuak dira gure lanaren eta proposamen didaktikoaren ulergarritasuna ulertzeko. Nafarroako biztanleriaren egunerokotasunean gehien entzuten den hizkuntza zein den argi geratzen da hurrengo datuekin: Nafarroako 16 urtetik gorako biztanleen %87,8k gaztelania erabiltzen du beti (%85,3) edo ia beti (%2,5), soilik %12,2k euskara neurri batean ala bestean erabiltzea hautatzen duen bitartean. 1991. urtean datu horiek nahiko antzekoak ziren, Nafarroan azken 25 urteotan euskararen erabilera gorabehera handirik izan ez duelaren seinale garbia: 1991. urtean euskara hizkuntza nagusi (gaztelania bezain beste edo gehiago erabiltzea) zutenak %6 ziren, eta egun %6,6 dira. Izan ere, eremu misto eta ez-euskaldunean euskararen presentzia oso txikia izaten jarraitzen du eta eremu euskaldunean euskara hizkuntza nagusia den arren, euskaldunen kopurua mantendu egin da. Horren ondorioz, hizkuntzaren ahozko erabilera normalizatutik urruti gaudela ondoriozta dezakegu, Nafarroan euskaldunen kopuruak gora egiten duelako, baina ez, ordea, euskararen erabilera.

Euskararen erabilpenari lotuta, interesgarria izan daiteke Garcia-Azkoagak eta Zabalak (2012) EAeko patioen euskararen erabilpenaren inguruan egindako ikerketa gogoratzea, azaleratzen dituzten datuak oso kezagarriak baitira: Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle goaren %59ak gaztelania erabiltzen du patio orduetan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan, berriz, %75. Beraz, euskararen erabilpena adinarekin gora egin beharrean, larriki egiten du behera.

4.3.3. EUSKARAREKIKO JARRERA

Hauek dira Nafarroako biztanleriak euskararekiko duen jarrerari loturiko datuak: nafarren herena (%33,3) euskararen erabilera sustatzearen alde dago, laurdenak baino gehiagok (%27,6) ez dauka posizio argirik eta %39,1 aurka dago. Beraz, euskararekiko jarrerak hobera egin du azken 25 urteetan, alde daudenen ehunekoak %21,1tik %33,3ra egin baitu gora (ia %13). Hala ere, euskara sustatzearen

aldeko jarrera ez da berdina eremuen guztietan: eremu euskaldunean %68,1; eremu mistoan %36,3 eta eremu ez-euskaldunean %19,1.

VI. Inkesta Soziolinguistikotik ateratzen diren datu hauek oso garrantzitsuak dira Nafarroan euskararen egoera zein den jakiteko. Gainera, Nafarroako egoera soziolinguistikoaren azterketak Nafarroako euskal hiztunaren profila irudikatzen laguntzen digu, gure estrategia metodologikoa ezartzeko garaian oso baliagarria egingo zaiguna.

4.4. Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculumak eta Hizkuntza Komunikazioa

24/2015 FORU DEKRETUA, apirilaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumak ezartzen duena, DBHko etaparen helburuak zehazten ditu, hizkuntzaren lanketa horien artean dagoelarik (Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculumak, 2015: 3):

4. artikulua. Etaparen helburuak.

h) Gaztelaniazko eta, kasua bada, euskarazko testu eta mezu konplexuak, ahoz eta idatziz, zuzen ulertu eta adieraztea, eta literatura ezagutzen, irakurtzen eta ikasten hastea.

Gainera, curriculumak ere zazpi gaitasun zehazten ditu, 2006ko abenduaren 18an Europako Parlamentuak eta Kontseiluak etengabeko prestakuntzarako gaitasun giltzarriei buruz emandako 2006/962/EC gomendioa aintzat harturik. Curriculum honetako **6. artikuluko lehenengo puntuan** gaitasun horiek zeintzuk diren zehazten da, *Hizkuntza Komunikaziorako gaitasuna* lehenengoa izanik. Gainera, artikulua berdinarekin hurrengo puntuetan hurrengoa xedatzen da (Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculumak, 2015: 4-5):

6. artikulua. Gaitasunak.

2. Etapan zehar gaitasun hauen garapena indartuko da: hizkuntza komunikazioa, [...] gaitasunak.

3. Hizkuntza komunikazioko gaitasuna gainerako gaitasunak eskuratzeko ezinbesteko faktorea denez gero, ikastetxeek ikasmaita guztietako irakaslanean bermatu beharko dute etapako irakasgai guztietan gaitasun hori [...] garatzeko denbora izanen dela.

Beraz, Nafarroako Bigarren Hezkuntzako Curriculumak Hizkuntza Komunikazioa oinarritzko gaitasuntzat hartzen du eta aldi berean bere garrantzia beste gaitasun guztien gainetik nabarmentzen du,

“hizkuntza komunikazioko gaitasuna gainerako gaitasunak eskuratzeko ezinbesteko faktorea denez gero” esaldian ikus daitekeena. Ildo berbera jarraitzen du 7. artikulua, Hizkuntza Komunikaziorako gaitasuna lantzeko beharra irakasgai guztietara zabaltzen baitu (Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculuma, 2015: 4):

7. artikulua. Zeharkako elementuak. *1. Etapako irakasgai batzuetan tratamendu berariazkoa ematea ezertan galarazi gabe, irakasgai guztietan landuko dira irakurriaren ulermena, ahozko eta idatzizko adierazpena, [...].*

Hortaz, Nafarroako Bigarren Hezkuntzako Curriculuma Hizkuntza Komunikaziorako gaitasunaren garrantzia azpimarratzen du dudarik gabe. Gainera, haren lanketa eta garapenaren erantzukizuna ez du hizkuntzako irakasgaietara mugatzen, baizik eta etapa bakoitzeko irakasgai guztietara. Beste era batera esanda, hizkuntzaren irakaskuntza, gure kasuan euskararena, ez da izen bereko irakasgaira mugatzen, bigarren hezkuntzako irakasgai guztietara baizik. Horrek garrantzi handia dauka gure lana ulertzeko, irakasle oro (Gorputz Hezkuntzako barne) hizkuntza irakaslean bihurtzen duelako. (Garcia-Azkoaga, 2002; Garcia-Azkoaga eta Zabala, 2012).

Curriculumaren azterketarekin amaitzeko, interesgarria izan daiteke Sagastak (2001) ekartzen duen hausnarketa. Bertan bigarren hizkuntzan (H2) zein etxeko hizkuntzetan gertatzen diren hizkuntza gaitasunak erlazionatuta daudela ondorioztatzen da. Gure testuingurura ekarriz, hizkuntza minoritario edo minorizatuan ikasten duten ikasleek hizkuntza maioritariora transferitzen dituzte bereganatutako estrategiak. Fenomeno hori azaltzeko Cumminsek Elkarmenpekotasun Linguistikoaren Hipotesia formulatu zuen.

Teoria horren arabera, hizkuntza bakoitzak bere ezaugarri propioak ditu, baina eskolan garatzen diren hizkuntza gaitasunak komunak dira eta hizkuntza batetik bestera transferi daitezke, betiere, baldintza batzuk betetzen badira (Sagasta, 2001):

- Irakaskuntzak eraginkorra izan behar du.
- Bigarren Hizkuntza (H2) ikasteko ikasleen motibazioa ezinbestekoa da.
- Bigarren Hizkuntza (H2) horren erabilera ziurtatu behar da.

Hizkuntza gaitasunen transferentzia ulertzeko, Elkarmenpekotasun Linguistikoaren Hipotesiari Atalase Mailaren Hipotesia batu behar zaio (Cummins, 1979; Skutnabb-Kangas eta Toukamaa, 1976; in Sagasta 2001), bata bestea gabe ezin delako ulertu. Teoria horren arabera zenbat eta gaitasun komunikatibo altuagoa izan bi hizkuntzetan (etxekoan zein Bigarren Hizkuntzan (2H)), orduan eta aukera handiagoa hizkuntza batetik bestera transferentziak egiteko. Gure testuinguruan egindako ikerketa ugarietan (besteak beste, Gabiña, Gorostidi, Iruretagoiena, Olaziregi eta Sierra, 1986; Olaziregi eta Sierra, 1989;

in Sagasta, 2001) ezberdintasun handiak aurkitu dira A ereduan ikasitako ikasleen transferentzia-gaitasuna D ereduarekin konparatzerakoan. Izan ere, D ereduiko ikasleek euskararen bereganatutako gaitasunak gaztelanian islatu dituzte, baina A ereduiko ikasleek, aldiz ez dute alderantzizko prozesua lortu (gaztelaniatik euskarara).

Bukatzeko, Euskal Herriko beste autore askok hirugarren teoria bat frogatu dute: zenbat eta elebitasun maila altuago izan bi hizkuntzatan, orduan eta emaitza hobekiago lortzen dira hirugarren hizkuntzan, kasu honetan ingelesean. (Cenoz, 1991; Lasagabaster, 1998 eta Sagasta, 2001). Beste herrialdeetako ikerketa ugari ere ondorio berdinak ateratu dituzte (Swain, Lapkin, Rowen eta Hart, 1990; Bernaus, 1996; Muñoz, 2000; in Sagasta, 2001).

Laburbilduz, aztertutako hiru teoriak kontutan hartzen baditugu, *hizkuntza curriculum bateratuaren* alde egiteko argudio eta justifikazio sendoa daukagula ondoriozta dezakegu. Horretarako, modu koordinatuan lan egin behar da, bai instituzio mailan (curriculumari hizkuntza curriculum bateratuaren ideia eta kontzeptua gehituz) zein ikastetxe mailan (irakasgai eta irakasle ezberdinen arteko koordinazioa landuz). Izan ere, ezin dugu ahaztu helburua dela ikasleek hizkuntza gaitasun maila egoki bat eskuratzea, hizkuntzen arteko transferentziak eman daitezen.

4.5. Proiektu lan egiteko metodologia

Azken urteotan proiektu lan egiteko metodologiak indar handia hartu du ikaskuntza antolatzeke moduari erreparatzen badiogu. Nafarroako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH hemendik aurrera) Curriculumak ere proiektu lan egiteko metodologiaz aritzen da behin baino gehiagotan, hala nola, irakasgai ezberdinetako programazioetan ikerketa proiektuak eduki-multzo gisa ezartzen dituenean. Hortaz, gero eta gehiago dira metodologia hau erabiltzera animatu diren ikastetxeak eta irakasleak. Hizkuntzen ikaskuntza ere ildo hau jarraitu du eta gaur egun hizkuntza berri bat ikasteko metodologia hau erabiltzen da gehienetan (Garcia-Azkoaga, 2001).

Lehenengo, metodologia honen definizioa ezartzen saiatuko gara: proiektu lan egiteko metodologia galdera edo problemen ebazpenean oinarritutako zereginen multzoa da, ikaslea ikerketa prozesuan zehar modu autonomoan parte hartzera motibatzen duena, eta ikasleek burututako azken produktuaren aurkezpen batekin amaitzen dena.

Hortaz, ikaslearen inplikazioa nahitaezkoa da metodologia hau ezarri ahal izateko, ikaslearen erantzukizunean gelditzen delako ikaskuntza prozesuaren diseinua eta planifikazioa, erabakien aukeraketa eta ikerketa-prozesuen garapena. Gainera, ikasleak modu autonomoan lan egiteko aukera du.

Argi ikusten denez, irakaslearen eta ikaslearen rola oso ezberdinak dira metodologia honetan, are gehiago hezkuntza tradizionalako metodologiek konparatzen badugu. Izan ere, proiektu lan egiteko metodologian ikasleak arazoei soluzioak ematen dizkiete, galderak egiten eta ideiak eztabaidatzen dituzte, konklusioetara ailegatzen dira, etab. (Blumenfeld, Soloway, Marx, Krajcik, Guzdial eta Palincsar, 1991; in Sanchez, datarik gabe). Irakasleak berriz, proiektu egokiak proposatu behar dituzte, ikasleek behar, nahi eta gaitasunetara moldatuta egongo dena (Johari eta Bradshaw, 2008; in Sanchez, datarik gabe).

Beraz, proiektu lan egiteko metodologiarekin ikaslea bere ikaskuntzaren protagonistan bihurtzen da, irakaslea bigarren plano batean gelditzen den bitartean. Horrek ez du esan nahi irakaslearen papera garrantzitsua ez denik, guztiz kontrakoa baita. Irakaslea ikaskuntza prozesuaren gidarian bihurtzen da, ikasleak euren ikaskuntzan autonomia eta erantzukizuna hartzen utziz. Hortaz, irakasleak ikaslea bideratu beharko du, honek ebazpenaren edo arazoaren irtenbidea aurki dezan.

Ikerketa ugari adierazten dute (besteak beste, Martinez, Herrero, Gonzalez eta Dominguez, 2007; Willard eta Duffrin, 2003...) proiektu lan egiten duten ikasleek motibazioa handiagoa erakusten dutela, irakaslearekin erlazioa hobetuz eta ikaskuntzaren (eta beste irakasgaien) zeharkako edukiak lantzeko gaitasun handiagoa erakusten dutela.

Laburbilduz, eta goian aztertutako ikerketekin bat eginez, Gorputz Hezkuntzako irakasgaia proiektu lan egiteko metodologiaren inguruan antolatzea proposatzen dut, haren fidagarritasuna eta arrakasta bermatuta baitago. Gure lanaren ikerketa-objektuari erreparatu, irakasgai honi metodologia honen ezarpenak ekarri ahal dizkion abantailen artean hizkuntza komunikaziorako gaitasuna lantzeko aukera agertzen da. Izan ere, proiektu lan egiteko metodologiak ahozko komunikazioaren bi esparru nagusiak lantzeko aukera ematen digu: alderdi informala (ikasleek arteko elkarrizketak...) eta alderdi formala (proiektuaren amaierako aurkezpena...).

4.6. Gorputz Hezkuntzako irakasgaia DBHn

4.6.1. Gorputz Hezkuntza ikaslearen garapen integrala lantzeko erraminta gisa

Hizkuntza Komunikaziorako gaitasunak Gorputz Hezkuntzako irakasgaian duen lekua aztertu baino lehen, irakasgai honek ikaslearen garapenerako ekartzen dituen abantailak azpimarratzea ezinbestekoa da. Heziketa Fisikoak ikaslearen garapen integrala du helburu, hau da, ikaslearen garapen motorren, kognitiboaren, sozialaren eta emozionalaren garapena (Fernandez, 2014). Izan ere, pertsonaren garapen integrala ez da mugimendu hutsarekin lortzen.

Ikaslearen garapen integralaren lorpenerako Gorputz Hezkuntzaren arloan dagoen baliabiderik nagusia ekintza motorra da (Parlebas, 2008; in Fernandez eta Azpeitia, 2016). Estrategia

metodologiko honen protagonista nagusia mugimendua da, eta hortaz, motrizitatearen lanketa ezinbestekoa bihurtzen da proposatutako jardueraren helburua lortzeko. Baina ekintza motorrak ez du soilik alderdi motorraren garapena bilatzen, garapen integraleko beste alderdi guztiak hartzen dituelako kontutan: alderdi soziala, emozionala eta kognitiboa ere Gorputz Hezkuntzako saioetan landu daitezke.

Izan ere, urteetan zehar Gorputz Hezkuntzako irakasgaia gorputzaren lanketari bideratuta egon da bakarrik eta arlo kognitiboaren lanketak ez du lekurik izan. Hala ere, Heziketa Fisikoko korrante berriek (hala nola, erronka kooperatiboetan oinarritutako metodologia) motrizitatearen bitartez kognizioa lantzeko aukera dagoela defendatzen dute eta azken urteotan irakasgaiak norabide berri bat hartu duela ondorioztatu daiteke.

Korrante berri horiei heldu dieten Gorputz Hezkuntzako irakasleek “adimen motorra” erabiltzen hasi dira arlo kognitiboa lantzeko baliabide metodologiko gisa. Hala ere, aspektu bat gogoan izan behar dugu adimen motorra lantzeko eta ez bakarrik kognizioa: irakasleak proposatzen duen jardueraren helburua lortzeko mugimendua erabakigarria izan behar da.

Aldi berean ekintza motorra bi elementutan dago banatuta: “egoera motorra” eta “jokabide edo jarrera motorra”. Egoera motorrak irakaslearen planteamendu pedagogikoari egiten dio erreferentzia, proposatzen dituen eduki eta jarduerari, alegia. “Jokabide edo jarrera motorra”, aldiz, ikaslearen ardura pean gelditzen da eta irakasleak egindako planteamendu pedagogikoaren ostean ikasleak daukan erantzuna aztertzen du. Biak ezinbestekoak dira ekintza motorraren estrukturan, bata bestea gabe ulertzen ez direlako. Izan ere, zenbat eta egokiagoa izan irakasleak proposatutako “egoera motorra”, orduan eta egokiagoa izango da ikasleak emandako “jokabide edo jarrera motorra”.

Nafarroako Bigarren Hezkuntzako Curriculumak ere garapen integralaren helburuari erreferentzia egiten dio Gorputz Hezkuntzako irakasgaia aztertzen duenean. Hala ere, egia da garapen integralaz hitz egiten duenean modu neurridunago batean egiten duela, esaldi hauetan ikus daitekeena (Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculumak, 2015: 81):

“Gaitasunetan oinarritzen den hezkuntzari esker, planteamendu integratzaile batetik definitzen dira ikaskuntzatik espero diren emaitzak, non ikasleek ikasten dutena haien garapen pertsonalean aplikatzera dagoen bideratua.”

“Gorputz Hezkuntzaren irakasgaiak pertsonen mugimena garatzea du helburu nagusi, hura batez ere mugimenduari loturiko ezagutza, prozedura, jarrera eta sentimenduen integrazio gisa ulertuta; helburu hori lortzeko, praktika hutsa ez da nahikoa, [...] ekintza horiei lotutako pertzepzio, emozio eta ezagutzaren alderdiak ulertuko dituzte, eta zeharkako ezagutzak eta abileziak integratuko dituzte.”

Laburbilduz, argi geratzen da Gorputz Hezkuntzako irakasgaia transformazio-prozesu batean murgilduta dagoela eta korrante berriek arlo honen norabidea aldatu nahi dutela. Horrela, Gorputz Hezkuntzako irakasgaiaren helburua ez litzateke soilik gorputzaren garapena izango, baizik eta ikaslearen garapen integralaren lanketa. Nafarroako Bigarren Hezkuntzako Curriculumak korrante berri honetara moldatzeko pauso txikiak eman dituen arren, asko dira haien saioetan metodologia berri hau aplikatzen hasi diren irakasleak.

4.6.2. Gorputz Hezkuntza hizkuntza komunikaziorako gaitasuna lantzeko erraminta gisa

Aditu askoren lanetan azpimarratu egin da Gorputz Hezkuntzaren arloak oinarritzko kompetentziak lantzeko dituen aukera ezin hobeak (besteak beste, Larraz, 2008; Vaca Escribano, 2008; Lleixà, 2007; in Fernandez 2014). Gainera, Hezkuntza-legearen curriculumetan bat egiten da ideia honekin (Oinarritzko Curriculum Diseinuan, EAEko Euskal Curriculumean eta Nafarroako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculumean).

Aurreko puntuan Gorputz Hezkuntzaren helburu nagusia zein den aztertu dugu, ikaslearen garapen integrala lortzea, alegia. Horretarako daukagun bitarteko nagusia hizkuntza da, hura baita ezagupena sortzeko eta garatzeko daukagun baliabiderik garrantzitsuenak (Garcia-Azkoaga eta Zabala, 2012). Hizkuntzaren baitan dagoen ahozko hizkuntzak motrizitatearen erregulazio-funtzioa dauka eta horregatik bihurtzen da hain garrantzitsua (Fernandez eta Azpeitia, 2016).

Hortaz, hizkuntz komunikazioa da Gorputz Hezkuntzan landu daitekeen gaitasunetako bat, jarduera diskurtsiboak eta ahozko komunikazioa lantzeko aukerak ugariak baitira irakasgai honetako saioetan. Larrazek (2008) dio Heziketa Fisikoko saioetan ohikoa dela konpetentzia linguistikoen erabilpena, hala nola, ahoz zein idatziz egiten diren azalpenak, deskribapenak, gogoetak, etab. Horrez gain, autore berak eta Coelhok (2008) arlo honek berriazko hizkuntza eta hiztegi bat duela azpimarratzen dute.

Plazaolak (2010) dio gelako berbaldia jarduera paregabea dela hizkuntza eta edukiak ikasteko eta horretarako, berbazko elkarrekintza sustatzea proposatzen du. Escribanok (2008) bat egiten du ideia horrekin eta eginkizun horretan Gorputz Hezkuntzak duen erraztasuna aipatzen du, bere saioetan hitz egitea, entzutea eta elkarrizketatzea ohiko jarduerak direlako.

4.3. puntuan ikusi dugun moduan, Nafarroan D ereduan murgiltzen diren ikasle gehienak euskaldun berriak dira, hau da, hizkuntza nagusizat gaztelania dute eta euskararen ikaskuntza eskolako esparrura mugatuta gelditzen da. Eta hain zuzen ere hori da Nafarroako D ereduako eskola gehienek ezaugarri nagusia: eleaniztasuna eta hizkuntza gutxitua (euskara) ardatz izatea. Are gehiago, “ikasle gehienek euskara murgilketan ikasten dutenez, hizkuntza gutxitua (euskara) irakaskuntzaren objektua (irakasgaia)

izateaz gain, elkarren artean komunikatzeko tresna eta hizkuntzaz kanpoko arloetan ezagutzak eraikitze baliabidea ere bada” (Garcia-Azkoaga, Bengoetxea eta Zabala, argitaratze prozesuan).

Horren harira, hainbat autorek aipatzen dute Gorputz Hezkuntza diziplina egokia dela bigarren hizkuntza (H2) lantzeko (Fernandez, 2010) eta horretarako, arrazoi ugari ematen dituzte: alde batetik, Abreuk (2010) ikasleak asko motibatzen dituen irakasgaia dela aipatzen du; beste aldetik, bere izaera komunikatiboak eta ikasleen eguneroko errealitate pertsonaletik oso gertu egoteak H2a ikasteko motibazioa handitzen du (Fernandez Barrionuevo, 2011); bukatzeko, Ramos eta Ruiz Omeñacak (2011) diote ikasleek errazago erlazionatzen dutela Gorputz Hezkuntzako irakasgaia testuinguru akademikotik kanpo duten bizitzarekin, eskolako kanpoko eremuarekin, esate baterako. Beraz, H2aren lanketak Gorputz Hezkuntzan eskolaz kanpo euskara erabiltzeko erabakian modu positiboan eragin dezake.

Izan ere, edozein testuingurutan komunikazio edo hizkuntza gaitasunak lantzea beti baldin bada garrantzizkoa, gurea bezalako hezkuntza eredu eleaniztun batean are garrantzizkoagoa bihurtzen da, batez ere hizkuntza gutxitua (gure kasuan euskara) denean irakaskuntzaren ardatza.

Beraz, Gorputz Hezkuntzako irakasleek bi ikaste-objektu landu beharko lituzkete haien klaseetan: jokabide motorra eta hizkuntzaren lanketa. Hala ere, gaur egungo Gorputz Hezkuntzako irakasle gehienek ez daukate hizkuntzaren lanketa bere lehenetsuen artean eta horren ondorioz, haien programazioetan ez da hizkuntzaren didaktikarekin loturiko helbururik hautematen (Fernandez, 2014). Gainera, irakasleek bere saioretan erabili ohi duten hizkuntza ikasleak motibatzerara edo zuzentzeko adierazpenetara mugatzen da, hala nola, txaloak, txistu egitea, etab. Horrek komunikatzeko modu mamitsu eta artikulatuagoak alde batera uzten ditu, hizkuntzaren lanketa bigarren plano batean geldituz (Barbero Gonzalez, 2005; in Fernandez, 2014).

4.7. Ahozko komunikazioa

4.7.1. Ahozko komunikazioa Curriculumean

DBHko curriculumak ahozko komunikazioari ematen dion garrantzia nahikoa ez dela ondorioztatu dezakegu, behintzat ikasleek gaitasun honetan izaten dituzten zailtasunak kontutan hartzen baditugu. Esparru honen lehenengo presentzia curriculumaren lehenengo orrietan aurkitzen da, hizkuntza komunikazioa (eta horren barruan ahozko komunikazioa) Bigarren Hezkuntzako zeharkako elementu gisa hartzen duelako. Horrek esan nahi du irakasgai guztiak ahozko komunikazioa landu beharko luketeela, hurrengo artikuluan ikus daitekeen moduan (Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculuma, 2015: 4):

7. artikulua. Zeharkako elementuak. 1. [...], irakasgai guztietan landuko dira irakurriaren ulermena, ahozko eta idatzizko adierazpena.

Hala ere, hau da curriculum osoan zehar ahozko komunikazioa lantzeko beharraren inguruan aurkitzen den erreferentzia bakarra. Esparru honen aipamen berri bat aurkitzeko, “D eredu: Euskal Hizkuntza eta Literatura” irakasgaira jo behar dugu: *nahitaezkoa da ikasleei estrategiak ematea gaitasun komunikatiboaren ahozko dimentsio honen taxuzko ikaskuntza laguntzeko eta esparru pertsonal, sozial, akademiko eta profesionalean beren bizitzan zehar emanen diren komunikazio egoerak eraginkortasunez gobernatzeko bermea izateko* (Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculum, 2015: 122):

Aipatutako helburua lortzeko, Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasgaietan lantzen diren lau edukimultzoetatik, batean egiten da ahozko komunikazioaren aipamena: “*Ahozko komunikazioa: entzutea eta ulertzea, hitz egitea eta elkarriketan jardutea*”. Bere helburua hurrengoa da: “*ikasleak behar diren abileziak eskuratuz joan daitezela beren ideiak zehaztasunez komunikatzeko, egoera komunikatibobaten arabera gero eta landuagoak diren diskurtsoak egiteko*” (Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculum, 2015: 122).

Hala ere, ahozkotasunaren alderdi informalak duen garrantzia aztertzen badugu, esparru honen presentzia nahiko eskasa dela ondoriozta dezakegu. Egia da “Ahozko Komunikazioaren” edukimultzoan *ahozko praktika ez formalak* aipatzen direla, baina praktika formalari ematen zaion garrantziarekin konparatzen badugu, alderdi informaleko garrantzia askoz ere txikiagoa da. Izan ere, askotan egiten zaio erreferentzia alderdi formaleko edukiei: txandak errespetatzea, kortesiazko oinarritzko arauak zaintzea, etab.

Dena dela, curriculumaren eta errealitatearen artean dagoen aldea berriz ere oso handia izaten da eta ikasleek haien egunerokotasunean oso aukera gutxi izaten dituzte euskararen esparru hau erabiltzeko. Errealitatea da, salbuespenak salbu, gaur gaurkoz ahozko hizkuntzaren lanketak ez duela oraindik berriazko lekua aurkitu gure eskoletan (Garcia-Azkoaga, Bengoetxea eta Zabala, argitaratze prozesuan), hurrengo puntuan aztertuko dugun moduan. Horrek ikasleen euskararen ezagutza mugatzen du, hizkuntza bat erabiltzeko ematen diren egoera informalak (famiariarekin, lagunekin, etab.) askoz gehiago direlako egoera formalak baino. Horren ondorioz, ikasle horiek eskolatik kanpo (egoera informaletan) euskara erabiltzeko daukaten motibazioan eragin negatiboa izan dezake.

4.7.2. Ahozko komunikazioa gure eskolan

Ahozko hizkuntzaz blai bizi gara eta gure bizitzaren esparru guzti-guztietan aurki dezakegu. Hezkuntzaren esparruan egoera berdina da, eskolaren barruan zein eskolatik kanpo ahozko komunikazioak garrantzi handia duelako.

Lehen Hezkuntzan gertatzen denari erreparatzen badiogu, betidanik hizkuntza idatzia izan da irakaskuntzaren ardatz nagusia eta horren ondorioz, jarduera didaktiko gehienak modalitate idatzia lantzerantz bideratuta egon dira. Ahozko lanketa, berriz, ikasleak haur direnean egiten den jarduera da, eta, behin idazketaren ikaskuntza hasten denean, poliki-poliki idatzizko hizkuntzak ahozkoari tokia, denbora eta garrantzia kentzen dio. Hezkuntzako etapetan gora egin ahala egoera hau gero eta ageriagoa da, DBHn ahozko komunikazioak ia presentziarik ez izatera heltzen delarik (Garcia-Azkoaga, Imaz, Diaz de Gereñu eta Alegria, 2010). Hortaz, egungo hezkuntza-sisteman, idatzizko hizkuntzak ahozko hizkuntza baino garrantzia handiagoa daukala ondorioztatu daiteke.

Trantsizio hori gertatzeko arrazoi batzuk Manterolak (2010) aipatzen dizkigu: besteak beste, gramatikaren irakaskuntzaren nagusitasuna dago mintzairaren alderdi komunikatiboaren gainetik, eta ahozko mintzaira irakasteko eta ebaluatzeko zailtasunek ere eragina dute. Bainenek (1994) ere bat egiten du ideia horrekin eta ahozkotutasuna lantzeko beharrezkoak diren dispositibo didaktiko egokiak sortzeko zailtasuna aipatzen du, batez ere baliabideen eta denboraren aldetik. Garcia-Azkoagak, Imazek, Diaz de Gereñuk eta Alegriak (2010) beste arrazoi bat gehitzen dute: alde batetik, kontzeptua bera mugatzea eta zer-nola irakatsi behar den erabakitzea zaila dela defendatzen dute. Bukatzeko, ahozko hizkuntza lantzea neketsuagoa gerta daiteke ikasle kopuruarengatik, metodologia arazoengatik, ebaluatzeko zailtasunengatik, etab. (Del Rio, 1993: in Garcia-Azkoaga, Imaz, Diaz de Gereñu eta Alegria, 2010).

Ziurtasun handiarekin baieztatu dezakegu Gorputz Hezkuntzako saioetan sortzen diren hizkuntza egoerak ez direla ematen beste irakasgai gehienetan. Izan ere, irakasgai honetan gertatzen diren egoera gehienak ikasleari ahozkotutasunaren alderdi informalerantz jotzera behartzen diote, hau da, espontaneo eta bat-batekoa den hizkuntzari. Horren ondorioz, ikasleek ezin dute jo eskolan ikasitako formulak eta esapideak erabiltzera eta ondo kontrolatzen ez duten erregistro baten aurrean aurkitzen dira.

Alderdi informala eskolan presentzia gutxi duen eta eskolatik kanpo lantzen den esparru bat da, esate baterako, lagunekin, familiarekin, etab. Horren ondorioz, Nafarroako eremu misto eta ez-euskalduneko ikasleek zailtasun handiak izango dituzte erregistro honekin, beraientzat euskara esparru akademikora mugatuta gelditzen den hizkuntza bat baita. Beste era batera esanda, Nafarroan euskara ikasten duten ikasle gehienak euskaldun berriak dira eta ez daude ohitura ahozkotutasunaren alderdi informala erabiltzera, euskarak eskolatik kanpo duen presentzia txikia dela eta. Hortaz, ahoz komunikatzeko trebetasunak garatzea berebiziko garrantzia hartzen du testuinguru honetan gure ikasle gehienentzat

euskara bigarren hizkuntza (H2) baita (bestek beste, Garcia-Azkoaga, 2001; Garcia-Azkoaga, Bengoetxea eta Zabala, argitaratze prozesuan).

4.7.3. Ahozko komunikazioa Gorputz Hezkuntzan

Garcia-Azkoagak, Bengoetxeak eta Zabalak, (argitaratze prozesuan) nabarmentzen duten bezala, irakasgai teorikoetan –Hizkuntza, Ingurunea eta Matematika- gehien bat irakasleak du hitza eta ikasleak hitz egiten duenean arruntena izaten da irakaslearen esku-hartzearekin lotuta egotea. Irakasgai praktikokoetan –Gorputz Hezkuntza, Musika eta Plastika-, aldiz, ikasleen ahotsak pisu handiagoa hartzen du. Hala ere, irakasgai hauetan ikasleek gaztelaniara jotzeko joera daukate, bertan ematen den erregistroa (informala) kontrolatzen ez dutelako. Une horien adibideak ugariak dira, baina soilik garrantzitsuenak aipatuko ditugu:

- Emozioekin lotutako uneak (haserrea, urduritasuna, taldeak animatzeko...)
- Jarduerak hasi aurretik eta ondorengo uneak, ikasleak euren artean hitz egiten ari direnean.
- Ikasleen arteko eztabaida uneak.

Gorputz Hezkuntza irakasgai praktikoen artean dagoela ezin da ukatu, bertan ikasleak jolas eta kirol ezberdinak praktikatzeko aukera daukatelako. Gainera, irakasgai teorikoetan ez bezala, Gorputz Hezkuntzako klaseen protagonista nagusiak ikasleak dira eta horren ondorioz, hitza hartzeko erantzukizuna beraien bizkarren gainean gelditzen da ere. Hala ere, bertan ematen diren egoera gehienak ahozko komunikazioaren erregistro informala erabilpena exigitzen dute, hala nola, lagunak animatzeko orduan, estrategiak adosteko uneak, etab.

Garcia-Azkoagak eta Zabalak (2012) egindako ikerketa batean, egoera informal horietan ikasleek gaztelaniara jotzeko joera izaten dutela ondorioztatu zuten. Aldi berean, kezkarriak diren bi datu aipatzen dituzte: alde batetik, gero eta gazte gehiago direla egoera informal baten aurrean hizkuntza aldaketa gauzatzea erabakitzen dutenak; beste aldetik, hizkuntza aldaketa ematen den adin tartea beheranzko joera daukala gaur egun. Gazteen arteko euskararen erabilpenaren atzerkadaren arrazoiak artean hauek aurki ditzazkegu: egoera informaletan moldatzeko gaitasun eza, gaztelaniaren ospe handiagoa, helduak imitatzeko joera, etab.

Garcia-Azkoagak, Bengoetxeak eta Zabalak (argitaratze prozesuan) Gorputz Hezkuntzako saioen azterketa gauzatu ondoren, bertan agertzen diren testu-genero nagusiak zeintzuk diren ondorioztatu zuten: alde batetik, portaeren erregulazioa (jolas-arauak, jarduera-arauak...) eta beste aldetik, azalpena (gai baten ahozko aurkezpena egiteko orduan).

5. METODOA

Hirugarren atalean aipatu dudan bezala, GrAL honen helburua da Gorputz Hezkuntzan hizkuntza komunikaziorako gaitasuna nola landu daitekeen aztertzea eta irakasgai honetan aipatutako gaitasuna lantzeko proposamen metodologiko bat sortuko dugu horretarako. Horretarako, testuinguru soziolinguistikoa eragina kontuan hartuko dugu, kasu honetan ikerketa Nafarroako eremu misto eta eremu ez-euskalduneko eremuan kokatuko dugularik. Zehazki, ahozko komunikazioan zentratuko naiz eta jakin nahi dut Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan Gorputz Hezkuntzako irakasgaien ze-nolako aukerak dauden esparru hori lantzeko.

5.1. Azterketaren kokapena: testuinguru soziolinguistikoa eta DBHko etapa/maila

Lehenik testuinguru soziolinguistikoa zehazten saiatuko gara. Marko teorikoan Nafarroako egoera soziolinguistikoa, bere hezkuntza-sistemak proposatzen dituen hizkuntza-ereduak eta gaur egun lurralde honetan euskarak duen egoera aztertu dugu. Horren azterketa egin eta gero, Nafarroako eremu mistoan eta eremu ez-euskaldunean D ereduan matrikulatuta dauden ikasleen egoera nahiko parekoa dela ikusi dugu. Alde batetik, ikasle gehienek gaztelania dute ama-hizkuntzatzat, hortaz, euskara bigarren hizkuntza (H2) gisa ikasten dute eskolan. Beste aldetik, hizkuntza honek eremu akademikotik kanpo duen presentzia oso eskasa da eta horren ondorioz, bere erabilpena oso mugatuta dago.

Horren guztiaren ondorioz, ez dugu ikusten beharrezkoa testuingurua eremu hauetako institutu bakar batera mugatzea. Beraz, gure proposamen didaktikoa Nafarroako eremu misto eta ez-euskalduneko edozein institutura zabaltzen dugu, betiere aurreko paragrafoan azaldutako baldintzak betetzen baditu. Hala ere, aurrerantzean egingo dugun datuen azterketa egiteko gure ikerketa Iruñako Mendillorri auzoko institutu publikoan kokatuko dugu, Mendillorri BHI deiturikoa.

Gaur egun, 11.000 pertsona inguru bizi dira Mendillorri (Iruñeako Udalaren Soziologia saila, 2017), horietako %37k 24 urte baino gutxiago dutelarik (Diario de Noticias, 2017). Hain da auzo gaztea, zein Mendillorri bi urtez jarraian izan zen Europako jaiotza tasarik handiena izan zuen auzoa. 2007. urtean auzo honetan institutu publiko bat eraiki zen, Mendillorri BHI deiturikoa. Bertan A, B, D eta G hizkuntza-ereduak eskaintzen dira eta gaur egun 587 ikasle inguru ditu, hauetatik 336 A eta G eredukoak, eta 251 D eredukoak.

Garrantzitsua da aipatzea proiektu pedagogiko hau DBHrako sortuta dagoela eta bertako etapa guztietan zehar erabil daitekeela. Hala ere, aurrerantzean aurkeztuko dudan proiektua ulertzeko DBHko ze

etapa/mailatan aurrera eramango dugun zehaztea komenigarria egiten da, proposamena egiteko orduan etapa horretako edukiak, gaitasunak eta helburuak kontuan hartu behar direlako. Hortaz, gure proposamena DBHko 2. mailan zehaztuko dugu, hurrengo atalean etapa horretarako egokiak izango diren hizkuntza eta komunikazio irizpideak zehaztuko ditugarrik.

Etaparen auzeraketaren arazoia Garcia-Azkoaga eta Zabalak (2012) egindako ikerketa batean aurki dezakegu, zeinetan EAEko 851 hezkuntza zentro eta 35.820 ikasle parte hartu zuten. Ateratako ondorioen artean hurrengo aurki dezakegu: DBHko 2. mailako (13-14 urte) ikasleen %75k gaztelania beti edo euskara baino gehiago erabiltzen du patio orduetan. Gainera, adin tarte horretan etxetik kanpoko bizitzak garrantzi handia hartzen du eta horren ondorioz, ikasleak egoera informal askori aurre egin behar diote: lagunen arteko erlazioak, erlazio erromantikoak, sare sozialak, etab. Egoera informal hauetan, ikasleak euskararen esparru hau menperatzen ez dutenez, gaztelaniara jotzeko joera izaten dute.

5.2. Ikastetxe bateko Gorputz Hezkuntzako helburu orokorren, gaitasunen eta edukiaren analisia

Aipatu dugu dagoeneko Curriculumak hizkuntza eta komunikazio gaitasunei buruz dioena. Jarraian, Gorputz Hezkuntzako irakasgaiaren helburu orokorrak, gaitasunak eta edukiak aztertuko ditugu (ikus eranskinak, 1. dokumentua), bertan hizkuntza gaitasunak agertzen diren ala ez ikusteko. Aurretik aipatu dugun moduan, azterketa hau egiteko Iruñako Mendillorri BHI institutua aukeratu dugu.

Aurretik aipatu dugun moduan, Mendillorri BHI institutuan D ereduak A eta G ereduak baino ikasle gutxiago ditu. Horrela, D ereduak 3-4 lerro/gela ditu maila bakoitzean, talde bakoitzak gutxi gorabehera 20-23 ikasle dituelarik. Institutu horren Gorputz Hezkuntzako mintegia bederatzi irakaslez osatuta dago eta bakoitza maila eta Gorputz Hezkuntzako irakasgaiak aparte, “Joko Motorea Hezkuntza Osagai gisa” (DBHko 2. mailan) eta “Jarduera Fisikoak eta Osasuna” (Batxilergoko 2. mailan) irakasgaietaz ere arduratzen dira. Hortaz, DBHko 2. mailan jarduera fisikoak eta kirolarekin erlazioatutako 2 irakasgai aurkitzen ditugu, baina soilik “Gorputz Hezkuntza” derrigorrezkoa da ikasle guztientzat. “Jarduera Fisikoak eta Osasuna” irakasgaiak, berriz, jokoak da ikaskuntzaren ardatz nagusia eta horren ondorioz, joko mota ezberdinak lantzen eta praktikatzeko dira: joko kooperatiboak, herri jokoak, joko asmatuak, kirol jokoak, orientazio jokoak, rol jokoak, joko libreak, etab.

Gorputz Hezkuntzako *helburu orokorrak, gaitasunak eta edukiak* (ikus eranskinak, 1. dokumentua) irakasgaiaren printzipio nagusiak ezartzen ditu. Dokumentu honetan aurki ditzazkegu etapako helburuak, gaitasun orokorrak (hizkuntza komunikaziorako gaitasuna horien artean) eta Gorputz Hezkuntzako irakasgaiaren eduki espezifikokoak, diziplinartekoak eta zeharkakoak.

DBHko etapako helburuei dagokienez, Nafarroako DBHko curriculumak hizkuntzarekin erlazioatutako helburu bat ezartzen du, lan honetako 4.4. puntuan jadanik aztertu duguna. Mendillorri

BHIko Gorputz Hezkuntzako irakasgaiak helburu hori ere jasotzen du bere programazioan, baina gaztelaniaz kasu honetan: *“Gaztelaniazko eta, kasua bada, euskarazko testu eta mezu konplexuak, ahoz eta idatziz, zuzen ulertu eta adieraztea, eta literatura ezagutzen, irakurtzen eta ikasten hastea”* (Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculumak, 2015: 3).

Programazioaren hurrengo puntuan curriculumeko zazpi gaitasun orokorrak aztertzen dira, Gorputz Hezkuntzako programazioak gaitasun horien lanketan egingo dituen ekarpenak azalduz. Gure kasuan begirada hizkuntza komunikazioko gaitasunean jarriko dugu, eta bertan irakur dezakeguna gure lanean egindako azterketarekin erlazio oso estua daukala ondoriozta dezakegu. Izan ere, ahozkoikasunaren lanketari erreferentzia egiten dio, esparru horren bi alderdiak aipatuz: alderdi informala 3. puntuan (*“intercambios comunicativos”*) eta formala 4. puntuan (*“exposiciones orales”*). Ahozkoikasunaren bi alderdi horien lanketa gure proposamen didaktikoaren ardatz nagusienak izango dira, gai bakoitzaren hiztegi espezifikoaren erabilpenarekin batera, programazio honetan ere aipatzen dena: *“Comunicarse a través del vocabulario básico [...] de cada unidad didáctica”*.

Bukatzeko, dokumentuak diziplinarteko edukiei eta zeharkako elementuei egiten die erreferentzia. Lehenengoari dagokionez, hizkuntza irakasgaiekin (*“Lengua castellana y literatura”, adibidez*) eta bere irakasleekin batera bultzatu nahi den jardueren artean, hiztegi berriaren lanketa, idatzizko lanak eta ahozko aurkezpenak aipatzen dira. Zeharkako elementuei dagokionez, curriculumak bere 7. artikuluan ezartzen duen elementuetako bat berreskuratzen da: *“irakurriaren ulermena, ahozko eta idatzizko adierazpena”*. Elementu horren lanketarako zenbait ekintza proposatzen dira, hala nola, artikuluen irakurketa, testuen sorrera, debateak, hausnarketa idatziak, ahozko aurkezpenak, etab. Gure proposamen didaktikoan ere jarduera horietako batzuk erabiliko dira, geroago aztertuko den bezala.

Laburbilduz, Mendillorri BHIko Gorputz Hezkuntzako irakasgaiaren helburu orokorretan, gaitasunetan eta edukietan hizkuntza komunikazioaren lanketaren garrantzia behin baino gehiagotan aipatzen da. Gainera, egiten diren ekarpenak neurri handi batean lagunduko lukete testuinguru honetako ikasleen beharrak asetzen, hala nola, euskarazko hiztegi espezifikoaren ikasketa, ahozkoikasunaren bi alderdien lanketa (formala eta informala), etab. Hortaz, lehen dokumentu horretan egiten diren ekarpenak nahiko aproposak direla ondoriozta daiteke.

5.3. Ikastetxe bateko Gorputz Hezkuntzako programazioaren analisia: DBH 2. maila

Mendillorri BHIaren D ereduko 2. mailako Gorputz Hezkuntzako programazioa aztertuko dugu hemendik aurrera (ikus eranskinak, 2. dokumentua) eta horrela, DBHko maila honetan lantzen diren gaiak eta erabiltzen den metodologia eta ebaluazio irizpideak zeintzuk diren jakin ahalko dugu. Gainera,

goian hizkuntza komunikazioaren gaitasunarekin erlazionatuta agertu diren helburu orokorrak, gaitasunak eta edukiak ikasturteko programazioan txertatuta agertzen diren aztertuko dugu.

Gorputz Hezkuntzako irakasgaiak 55 minutuko bi saio ditu astean, hau da, 1 ordu eta 50 minutu osotara. Saio horiek gehienetan elkarren jarraian ematen dira eta 10-15 minutu dutxa hartzeko erreserbatzen dira. Hortaz, institutu honetako Gorputz Hezkuntzako irakasleek gutxi gorabehera ordu eta erdi daukate haien saioak antolatzeko. Mintegiko irakasleek euren saioetan landuko dituzten gaiak/kirolak antolatzeko modu jakin bat jarraitzen dute, nahiz eta maila bakoitzean gai ezberdinak lantzen dituzten. Maila bakoitzerako 9-10 ikas-unitate erabakita dituzte, hiruhileko bakoitzean horietako hiru lantzen saiatzen direlarik, bereziki elkarren artean erlazio handiagoa dutenak. Gure kasuan, 2. mailako Gorputz Hezkuntzako programazioaren azterketa egingo dugu (ikus eranskinak, 2. dokumentua). Hiru dira maila horretan lantzen diren eduki-multzoak:

1. hiruhilekoan: ikasleen *egoera fisikoaren balorazioa* (erresistentzia eta malgutasun jarduerak...) eta ikasturtean zehar erabiliko den *beroketa orokorraren* ikasketa bideratzen da, zenbait *kirol joko* lantzen diren bitartean.
2. hiruhilekoan: *erritmoa eta gorputz adierazpenari* (fitness, aerobic, akrosport, euskal dantzak...) eta *koordinazioarekin* lotutako gai bat (kasu honetan malabareak) lantzen da.
3. hiruhilekoan *talde kirol* (beisbola/eskubaloia) eta *kirol egokitu* edo *kirol alternatibo* (palak) ezberdinak praktikatzen dira.

Hortaz, maila honetan lantzen diren gaiak aztertuta hizkuntza gaitasunekin lotutako jarduerarik ez dagoela ikus daiteke. Egoera hori arruntzat jo dezakegu, hizkuntza gainerako gaitasunak eskuratzeko faktorea delako, baina ez du zertan ikasturtean landuko diren gaien eta kirolen artean agertu. Beste era batera esanda, Gorputz Hezkuntzako irakasgai guztiz beharrezkoa izango da hizkuntza, bertan landuko diren gai/kirolen inguruko ikaskuntzak eraikitzeko bitartekorik nagusia delako. Hain zuzen, irakasgai honen izaera praktikoaren mailaren ondorioz, hizkuntzaren ahozko-komunikazioko esparrua izango da garrantzi gehien hartuko duena, nahiz eta edukien artean ez zaion erreferentziarik egiten.

Hizkuntza komunikazioa irakasgai guztietan landu beharreko oinarritzko gaitasuna denez, haren lanketaren presentzia irakasgaiaren metodologian edo ebaluazio irizpideetan aurkitzea arruntena izan beharko litzateke. Hala ere, ez da irakasgai honen kasua, hizkuntza gaitasunei loturiko aipamenik aurkitzen ez delako. Programazioan oinarritzko gaitasunei erreferentzia egiten dien esaldi bat aurkitzen dugu ("*funtsezko gaitasunak lantzeko planteamenduak eta proposamen integratzaileak*"), baina oso globala da eta ez du hizkuntza komunikaziorako gaitasunaren inguruko aipamenik zehazten. Irakasgaiaren ebaluazio irizpideei dagokienez, hizkuntza gaitasunekin lotura daukan irizpide bakarra "*ikasleen parte hartze aktiboa*" izango litzateke, hala ere, parte hartze aktibo hura ez da zehazten zeri

egiten dion erreferentzia, ikaslearen erantzun motorrari edo ahozko komunikazioari (irakaslearen galderak erantzutea, kezkek galdetzea...).

Hortaz, aurreko puntuan ikusi dugu Gorputz Hezkuntzako irakasgaiaren helburu orokorretan, gaitasunetan eta edukietan hizkuntza komunikaziorako gaitasuna modu egokian txertatuta dagoela. Hala ere, DBHko 2. mailako Gorputz Hezkuntzako programazioa aztertzean ez da hizkuntza komunikazioari lotutako erreferentziarik aurkitzen eta aurreko dokumentuan egindako ekarpen guztiak desagertzen dira.

Beraz, hizkuntza komunikazioaren lanketak garrantzia handia hartzen du irakasgaiaren printzipio nagusiak ezartzeko unean, baina praktikara eramaterakoan (ikasturteko programazioa antolatzeke eta saioak aurrera eramateko orduan) gaitasun horren lanketak garrantzia galtzen doa eta haren inguruko erreferentziarik ez da aurkitzen. Horrek garrantzia handia hartzen du, ikasleen egunerokotasuna (GHko saioak, ebaluazio moduak...) erlazio handiagoa duelako ikasturteko programazioarekin irakasgaiaren helburu, gaitasun eta eduki orokorrekin baino. Gainera, ikastetxe berdinen Gorputz Hezkuntzako programazio ezberdinak aztertuz, konturatuko ginateke deskribatutako egoera maila ezberdin guztietara zabaltzen dela, esate baterako, DBHko 4. mailara ere (*ikus eranskinak, 3. dokumentua*).

Laburbilduz, lanaren atal honetan ikerketaren kokapena (testuinguru soziolinguistikoa eta DBHko etapa/maila) zehaztu dugu eta bertan Gorputz Hezkuntzako irakasgaiaren hizkuntza komunikaziorako gaitasunak duen presentzia aztertu dugu. Beraz, lan honen ikerketa eta analisi fasea bukatutzat eman daiteke eta aurkeztutako egoeraren hobekuntzan erraminta izan nahi duen proposamen metodologikoa aurkezteko garaia heldu da.

6. EMAITZAK

Aurreko atalean Mendillorri BHI institutuko 2. mailako Gorputz Hezkuntzako programazioaren eta materialaren azterketa egin dugu. Horren ondorioz, hurrengo ondorioa atera dezakegu: hizkuntza komunikazioak garrantzia handia hartzen duela irakasgaiaren ardatz nagusiak ezartzeko orduan (helburu orokorrak, gaitasunak eta edukiak), baina ikasleen egunerokotasunarekin gehiago erlazionatzen den programazioan (ikas-unitateak, metodologia, ebaluazio irizpideak...), berriz, ez da hizkuntzaren lanketaren ahalbidetuko lukeen erreferentziarik aurkitzen. Horren ondorioz, Gorputz Hezkuntzako saioak praktikara eramateko orduan hizkuntza komunikazioaren lanketak garrantzia galtzen duela ondoriozta daiteke.

Aztertu dugunaren arabera, argi geratzen da beharrezkoa dela Gorputz Hezkuntzako irakasgaien hizkuntza komunikaziorako gaitasuna txertatzen lagunduko duten proposamen didaktiko ezberdinen sorrera. Aurrerantzean, helburu horren lorketan lagundu nahi duen proposamen didaktiko bat aurkeztuko dugu. Garrantzitsua da gogoratzea proposamen hau DBHko edozein etapara moldatu daitekeela, nahiz eta aurrerantzean proposatuko den proiektua 2. mailan kokatuta dagoen.

6.1. Proposamen didaktikoaren egitura orokorra

Puntu honetan DBHko 2. mailara bideratuta egongo den proposamen didaktikoaren estruktura zehazten saiatuko gara, hurrengo puntuan estruktura horren nondik-norakoak modu sakonagoan azalduko direlarik.

Lehenik eta behin, DBHko 2. mailan Gorputz Hezkuntzako irakasgaien landu beharreko hizkuntza eta komunikazio irizpideak zehazten saiatuko gara. Irizpide hauek zehazteko garaian kontuan hartu beharko da ikastetxeko Hizkuntza Proiektuan eta Nafarroako DBHko curriculumean aipatzen dena. Horrela, Nafarroako DBHko curriculumak irakasgai honetarako zehazten dituen edukiak proiektuen bidez antolatuko lirateke, irakasgaiko helburu propioak eta hizkuntzako helburuak ere landuz.

Gorputz Hezkuntzako irakasgaien proiektua lan egiteko metodologia aurrera eramatea proposatzen dugu. Gure kasuan, Mendillorri BHIko 2. mailako Gorputz Hezkuntzan aurrera eramaten den programazioa kontutan hartuta bederatzi proiektu ezberdinetan antolatuko genuke ikasturtea. (hiru proiektu hiruhilabeteko). Proiektu bakoitza aurrera eramateko hurrengo estruktura jarraituko litzateke:

1. Proiektuaren aurkezpena + gaiaren hiztegi espezifikoak, ikasleek proiektuan zehar erabili beharko duten hizkuntza gaztelaniaren eragina izan ez dezan.

2. Proiektuaren langaia praktikan jartzea, irakasleak proposatzen dituen jarduerak burutzeko eta ekintza motorra lantzeko. Ikas-unitate horiek lantzeko irakasleek betidanik erabili dituzten saio arruntak dira hauek, baina kasu honetan ahozkotasanaren alderdi informala lanketa ahalbidetuko dituzten jarduerak pisu handia hartuko dute: ikasleen arteko bat-bateko elkarrizketak bultzatzea, ikaskideak edo taldeak animatzea, emozioak adieraztea...
3. Landutako gaiaren inguruan ahozko komunikazioa lantzeko estrategiak txertatzea, zeintzuetan ahozkotasanaren alderdi formalak presentzia handia izango duen. Proiektuari amaiera emateko balioko du eta aukera ugari izango dituzte irakasleek: taldekako ahozko aurkezpen bat beste ikasleen aurrean, jarduera/jolas/kirolaren xehetasunak ahoz deskribatzea, etab.

6.2. Hizkuntza eta komunikazio irizpideak Gorputz Hezkuntzako irakasgaian

Jadanik aztertu dugu Gorputz Hezkuntzako irakasgaia esparru egokia dela hizkuntza gaitasunak lantzeko, baina oraindik ez dugu zehaztu zer eta nola landuko den. Hortaz, beharrezkoa da zehaztea zeintzuk izango diren gure proposamen didaktikoa aurrera eramateko irakasleek kontuan hartu beharko dituzten hizkuntza eta komunikazio irizpideak. Hauek zeintzuk diren zehaztu baino lehen, garrantzitsua da aipatzea irizpide guztiek garrantzi bera dutela, hortaz, bata bestearen aurretik deskribatua izan arren, ez du garrantzi mailarekin zer ikusirik:

Gorputz Hezkuntzako irakasgaian hizkuntza komunikaziorako gaitasuna lantzeko irakasleek kontuan hartu beharreko hizkuntza eta komunikazio irizpideak:

- Gelako arau sozialak finkatzea:
 - * Ahozko adierazpenerako uneak sortu eta kudeatu, hala nola, “ikasketa eraikitzeke unean” (saioaren hasieran) eta “barealdian eta hausnartzeko unean” ikasleak borobilean biltzea eta hitz egiteko aukera eskaintzea (galderak, azalpenak, deskribapenak...). “Atal nagusian”, berriz, ahozkotasanaren alderdi informala gehiago bultzatzen bilatuko da: ikasleen bat-bateko elkarrizketak, taldeak animatzea, emozioen adierazpena...
 - * Hitza hartzeko arauak adostea (eskua altxatu, zutik jarri...)
 - * Ikasle guztiei hitza hartzeko aukerak eskaintzea. “Barealdian eta hausnartzeko unean”, adibidez, objektu bat erabil daiteke ikasle guztien parte-hartzea bermatzeko. Horrela, objektua duen ikasleak saioan landutakoa komentatzeko aukera izango du (zer iruditu zaion, aspektu positiboak/negatiboak, zer ikasi duen...) eta bukatzerakoan beste ikaskide bati pasatuko dio.

- Proiektu bakoitzaren hasieran (lehenengo saioan) edukien hiztegi espezifiko bat burutzea eta erabiltzea, ikasleak hitz horiek erabiltzeko orduan gaztelaniara jotzeko beharra izan ez dezaten. Irakaslea saiaturiko da hiztegi honek gaztelaniaren eragina ez edukitzea, gaiaren inguruko euskarazko hiztegi erreala bilatuz eta hura ikasleei eskainiz.
- Ahozkotasanaren alderdi informala bultzatzea: ikaskideen arteko elkarrizketarako uneak egotea, taldea animatzeko estrategiak, jarduerentzako estrategiak adostea, emozioak eta sentimenduak adieraztea...
- Ahozkotasanaren alderdi formala bultzatzea: aurkezpen formal bat burutzea eta defendatzea, irakasleari egokitasunez galdetzea edo erantzutea, etc. Horretarako, Gorputz Hezkuntzan ematen diren testu-genero nagusiak lantzea eta menperatzea: azalpena (gai baten ahozko aurkezpena...), portaeren erregulazioa (jolas-arauak...), deskribapena (ekintzaren zergatia adierazteko...)
- Erregulazio keinuak adostea eta erabiltzea ahozko hizkuntzaren erabileran eragiteko: bai/ez erako erantzunak eskatzen dituzten galderak saihestea, hauen ordez erantzun luzeak bultzatuz.

Proiektu honetarako aukeratutako hizkuntza eta komunikazio irizpide hauek proposamen bat baino besterik ez da, DBHko 2. mailako ikasleen behar eta gaitasunetara moldatuta dagoena. Hala ere, irakasle bakoitzak irizpide hauek bere testuingurura, DBHko etapara eta ikasleen ezaugarrietara moldatu beharko ditu, indartu nahi dituen hizkuntza eta komunikazio edukiak goraiatuz eta jadanik garatuta daudenak ezabatuz.

Bukatzeko, komenigarria da irizpide hauek ikastetxearen Hizkuntza Proiektuak ezartzen duenarekin bat egitea. Izan ere, proiektu hauetan hizkuntzen irakaskuntzari eta erabilerari lotutako alderdien planifikazioa gauzatzen da, ikastetxeko ikasleen beharrianak eta ezaugarriak kontuan hartuta. (Eusko Jaurlaritza, 2016). Hala ere, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak ez du bultzatu ikastetxeetako hizkuntza-proiektuen sorrera, 2019. urtean EAEn Eusko Jaurlaritzak hizkuntza-proiektuak garatzeko 1,3 milioi euroko aurrekontu-saila jarri duen bitartean.

6.3. Proiektuak lan egiteko metodologiaren bidezko proposamen didaktikoa

6.3.1. Proiektuaren aurkezpena eta hiztegi espezifikoaren sorrera

Irakasleek ondo prestatu behar duten atal bat da hau. Lehen fase honetan ikasleei proiektuaren nondik norakoak aurkeztuko zaie, hala nola, landuko den gaia, aurrera eramango diren ekintzak/jarduerak,

proiektuaren helburuak... Gaiarekin izango duten lehen kontaktua da hau, hortaz, garrantzitsua da ikasleek ulertzea zein den gaia eta zeintzuk diren landuko diren helburuak. Horretarako, irakasleak beste baliabide batzuk erabil ditzake proiektuaren aurkezpena ulergarriagoa egiteko, esate baterako, Power-Point bidezko aurkezpen bat, txosten txiki bat jardueraren/kirolaren arauak aurkezteko.

Gainera, une aproposa izan daiteke landuko den gaiaren inguruan ikasleek dituzten aurrezagutzak zeintzuk diren jakiteko. Aldi berean, hizkuntza eskakizunak eta berbazko komunikazioaren lanketarako estrategiak txertatzeko momentu aproposa izan daiteke ere, hala nola, ikasleei azalpenak, laburpenak, deskribapenak, etab. eskatzeko. Gure programaziotik (*ikus eranskinak, 1. dokumentua*) adibide bat hartuta, 3. hiru hilekoan eskubaloiko proiektua aurkezteko orduan honako galderak egingo lituzke irakasleak: “zer dakizue eskubaloien inguruan?”, “zeintzuk dira erabiltzen diren materialak?”, etab.

Bestalde, jadanik aipatu dugu Gorputz Hezkuntzako saioetan ikasleek erabiltzen duten hizkuntza gaztelaniaren eragin handia daukala. Horren ondorioz, gure klaseetan ez da arraroa “apoyatu”, “saltatu” edo “tobilloan mina daukat” bezalako hitz eta esaldiak entzutea. Hori saihesteko garrantzitsua da irakasleak proiektuaren landu baino lehen gaiaren hiztegi espezifiko bat sortzea eta lehen saioan ikasleei eskaintzea. Gainera, ikasturtearen hasieran Gorputz Hezkuntzako irakasgaien maiz agertzen diren hitz eta esaldien glosario orokor bat prestatzea gomendagarria izango litzateke ere, horiek erabiltzeko orduan ikasleek gaztelaniara jo ez dezaten.

6.3.2. Gorputz Hezkuntzan ahozko komunikazioaren alderdi informala lantzeko estrategiak

Gorputz Hezkuntzako saioetan ahozko komunikazioaren alderdi informala nonahi aurki dezakegu: klasea hasi baino aurretik eta ondoren ematen diren ikasleen arteko elkarrizketetan, taldea animatzerakoan, jarduerentzako/jolasentzako estrategiak adosterakoan, emozioak eta sentimenduak adierazterakoan, etab. Hortaz, jadanik egoera horiek gure saioetan ematen dira, irakasleek egin behar duten gauza bakarra da euskararen ikaskuntzarako baliagarriak izango diren aspektuak identifikatzea eta horien lanketa bultzatzea.

Hezkuntzaren munduan ahozko komunikazioaren alderdi informala lantzeko oso aproposa izan daitekeen erraminta bat daukagu: ikaskuntza kooperatiboa. Metodologia hau Gorputz Hezkuntzan aurrera eramateko erronka kooperatiboak aurkitzen ditugu, arazoaren kudeaketa bilatzen duen estrategia, alegia. Metodologia honetan lankidetzaren ikaskuntza prozesuaren ardatza izan behar da, honen helburu, jarduera eta ebaluazioan kontuan hartuz.

Hortaz, erronka kooperatiboaren bitartez proposatutako arazo baten soluzioa aurkitzeko, ikasleek “*Pentsatu – Partekatu – Ekin*” prozesua martxan jarri beharko lukete. Hauek dira, metodologia honetan jarraitu behar diren pausoak:

1. Irakasleak proposatzen du taldekide guztien laguntza bete behar duen erronka bat.
2. Ikasleak, indibidualki, konponbideak aurkitzen saiatzen dira.
3. Taldekide bakoitzak aurkezten du pentsatutako konponbidea.
4. Taldeak ontzat hartzen du, gutxienez, kide bakoitzaren konponbide bat eta praktikan jartzen dute ikusteko baliagarria den ala ez.
5. Ideia guztietatik eraginkorrena eta egokiena aukeratu eta beste taldeen aurrean aurkezten dute.

* Azken puntu horietan (3.enetik aurrera) agertzen da ahozkotasanaren alderdi formalaren presentzia nabarmenena. Izan ere, ekintza praktikara eramaten denean alderdi formalak garrantzi gehiago hartzen du eta horren ondorioz, lagunarteko hizkera eta erdarakadak agertzen dira: emozioak adierazterakoan, ikaskideekin elkarriketak izateko orduan, animoak ematean, etab.

Erronka kooperatiboen metodologia eraginkorra izan dadin baldintza batzuk bete behar dira. Alde batetik, taldekatzeak egiterako orduan 4 edo 5 ikasleetako taldeak burutu behar dira, kopuru honek talde egonkorrak sortzen dituelako eta ikasle guztien parte hartze erreala bermatzen duelako. Beste aldetik, talde kopuru totala baino erronka gehiago prestatu behar dira, taldeak itxaron behar ez izateko. Adibidez, 6 talde badira, irakasleak 8 erronka prestatu beharko lituzke. Erronka gaintzeko, irakasleak ontzat eman beharko ditu talde ezberdinek burututako ekintzak. Bukatzeko, gogoeta bultzatuko da, hasieran taldekakoa (informalagoa) eta geroago klase guztiarena (formalagoa). Hausnarketa hori ahoz gauzatu da eta egoera horrek aukera emango du, gainera, ahozkotasanaren alderdi formalaren aspektu ugari lantzen hasteko: hitz-txandak gordetzen ikasteko, moderatzaile lana egiten ikasteko, iritziak ematen ikasteko, argudioak eta kontrargudioak erabiltzeko...

Aldi berean ikasleen garapen integrala lantzeko aukera ugari eskaintzen ditu metodologia honek:

- *Alderdi motorra*: gaitasun fisikoak (trebetasun motoreak) beharrezkoak dira erronka gaintzeko.
- *Arlo soziala*: ikasleen arteko elkarlana funtsezkoa bihurtzen da.
- *Arlo kognitiboa*: kognizioa eskatzen du erronkari konponbide egoki bat aurkitu ahal izateko.
- *Arlo emozionala*: emozioen kudeaketa beharrezkoa izango da.

Laburbilduz, erronka kooperatiboen bidezko metodologian ahozko komunikazioaren alderdi informaleko egoera ugari sortzen dira. Gorputz Hezkuntzako irakasleek egoera horiek identifikatu eta horiek bultzatzeko jarduerak proposatu behar dituzte, erronka kooperatiboak jarduera horiek aurkitzeko baliabide/metodologia oso aproposa izan daitekeelarik.

6.3.3. Gorputz Hezkuntzan ahozko komunikazioaren alderdi formala lantzeko estrategiak

Ahozko komunikazioaren adierazpen egituratua aztertu nahi dugu atal honetan. Horretarako, proiektu bakoitzaren amaieran ikasleak taldeka ahozko aurkezpen bat gauzatzea proposatzen dugu. Jarduera honekin proiektuari amaiera emango zaio eta ikasleek ikasitakoa erreparatzeko aukera izango dute, ahozko komunikazioaren alderdi formala lantzen duten bitartean.

Hauek dira ahozko aurkezpena prestatzeko jarraitu beharko diren urratsak:

1. 5-6 kideetako taldeak osatuko dira. Irakasleak erabaki hartu beharko du taldekatzeak modu librean egiten uzten dituen ala ez.
2. Taldeka landutako gaiaren esparru bat hartu beharko dute. Erabakitzen dutenean irakasleari abisatu beharko diote gaiak ez errepikatzeak. Hauek dira gai posible batzuk: arauak, estrategiak, taldekatzeak, teknika, kirolaren goi mailako/aisialdirako arteko ezberdintasunak...
3. Hartutako esparruaren inguruko informazioa bilatu. Horretarako, klasean landutakoa osatzeko IKT-ak erabili ahalgo dira, bai informazioa bilatzeko zein aurkezpena prestatzeko.
4. Aurkezpen finala, zeinetan ikasle guztiek parte hartu beharko duten eta debatea edo galderak sortu ahalgo diren. Aurkezpen hauek ez dira oso luzeak izan behar (5-10 minutukoak gehienez) eta ahozko aurkezpen formal bat egitea ez da derrigorrezkoa izango. Hau da, ikasleak nahi duten erara aurkeztu eta azaldu dezakete beraien gaia: antzerki bat eginez, erakustaldi praktikoak eginez (jokaldiak imitatuz...). Hori bai, aurkezpen horietan ahozkoak presentzia edukitzea ezinbestekoa izango da, irakasleak hizkuntzarekin erlacionatutako ze eduki ebaluatu nahi dituen erabakiko dituelarik: ahoskera, intonazioa, gaiaren hiztegi espezifikokoaren erabilpena, publikoarekin interakzionatzea...

Garrantzitsua bihurtzen da azken fase honetan egun bat baino gehiago ez ematea, honen helburua proiektuari amaiera ematea eta ahozkotasanaren alderdi formala lantzea besterik ez delako. Mendillorri BHIko 2. mailako programazioa kontuan hartuta, eskubaloiko ikas-unitatea antolatzeko eredu bat eskainiko dugu:

- ✓ *Taldekatzeak eta gaiaren aukeraketa (lehenengo bi puntuak):* klase baten azken 10 minutuetan egin ahal da. 5-6 kideetako taldeak eta talde bakoitzari saskibaloiko gai bat egokituko zaio: eskubaloien historia, arauak, teknika, errendimendurako/eskubaloiko profesionala eta eskolako kirolaren arteko ezberdintasunak, etab.
- ✓ *Informazioaren bilaketa (3. puntua):* etxeko-lan gisa bidali daiteke eta horretarako, ikasleak Interneten eskura dauden bibliografia eta baliabide teknologikak erabili ahal dituzte, hala nola, bideokonferentzia bat egitea lanaren aurkezpena antolatzeko.

- ✓ *Aurkezpen finala (4. puntua)*: proiektuaren azkeneko saioa erabiliko da eta talde bakoitzak bere aurkezpena beste klasekideen aurrean burutu beharko du.

Ahozko aurkezpen formalak nola sortu eta egituratu behar diren lantzeko ez du denborarik ematen Gorputz Hezkuntzako saioetan. Gaitasun hori eskuratzeko lehenik eta behin hizkuntzaren testu-genero ezberdinak landu behar dira, eta erantzukizun hori beste irakasgai batzuei dagozkie, curriculumak euren programazioetan eduki horien lanketa ezartzen duelako. Hortaz, gaitasun horiek eskuratzeko diziplinarteko lana bultzatu daiteke, bereziki “euskara” eta “gaztelania” bezalako hizkuntzako irakasgaiekin. Lankidetzaren bitartez, irakasgai horietan hizkuntzako testu-generoak landu ditzakete, helburuetako bat ahozko aurkezpen formal bat sortzeko gaitasuna eskuratzeko izango delarik.

Beraz, hizkuntzako irakasgaietan landutako eduki horiek Gorputz Hezkuntzako irakasgaietan indartuko dira, ikasleek gauzatuko dituzten ahozko aurkezpenen bidez. Hala ere, Gorputz Hezkuntzako irakaslearen erantzukizuna izango da hizkuntza-gaitasunekin lotutako ze aspektu eskatuko dien zehaztea, horiek lantzeko eta ebaluatzeko momentu aproposak aurkitzea eta bukatzeko, hizkuntza-gaitasun hori ebaluaziorako kontuan hartuko duen ala ez erabakitzea, baiezkota izatekotan irakasgaiaren programazioan islatu beharko duelako.

Jadanik aipatu dugun moduan, ahozko aurkezpen hauek ez dute soilik ahozkotasanaren alderdi formala lantzeko helburua izango. Izan ere, proiektu bakoitzaren amaieran ikasleek ikasitakoa ebaluatzeko tresna izan daiteke ere. Horren ondorioz, irakasleak proiektuaren hasieran planteatu zuena eta jarri zituen helburuak bereganatu diren ikusteko aukera izango du. Hortaz, ikasleek egindako ahozko aurkezpenak ebaluatzeko erraminta bat izan daitezke, ikasleek motrizitate-helburuak eta hizkuntza-helburuak zenbateraino lortu dituzten ikusteko. Gainera, aurkezpen hauetatik ateratako ondorioak eta hobekuntza-proposamenak proiektua hobetzeko aukera ematen dio irakasleari, hurrengo proiektuetarako eta ikasturteetarako baliagarria izan daitekeena.

7. ONDORIOAK

Atal honetan aztertutako marko teorikotik eta proposatutako lan pedagogikotik zenbait ondorio orokor ateratzen saiatuko naiz, baliagarriak izan daitezkeen datu eta informazioak berreskuratuz. Horretaz gain, lanaren hasieran aurkeztutako hipotesia berreskuratuko dut, hori bete den edo ez ikusteko. Gogora dezakegun zein den GrAL honen hipotesia: *Gorputz Hezkuntzan ez direla aintzat hartzen komunikazio-gaitasunak, nahiz eta horretarako aukera eta testuinguru aproposa duen irakasgai honek.*

Ikaskuntza-prozesuan hizkuntzak duen garrantzia argi eta garbi dago, irakasgai eta irakasle guztiek erabiltzen dutelako haien edukiak irakasteko. Behin baino gehiagotan aipatu dugun bezala, gaur egun hizkuntzen ikaskuntza hizkuntza-irakasgaietara (“euskara”, “gaztelania”, “atzerriko hizkuntza”...) mugatuta dago, beste irakasgaietan esparru hau lantzen ez delarik. Euskararen ikaskuntza ez da salbuespena izan eta gure ikastetxeetan haren ikaskuntza “euskara” irakasgaietan ematen da soilik, beste irakasgaietako programazioetan haren arrastorik sumatzen ez delarik.

Hezkuntza sistemak egiten ari duen akats larrienerako baten aurrean gaudela ondoriozta dezakegu. Izan ere, euskararen ikaskuntza soilik “euskara” irakasgaietan ematea nahiko eskasa izan daiteke euskara H2 gisa ikasi behar duten ikasleentzat, alegia, eremu misto eta ez-euskalduneko ikasle gehienentzat. Horren ondorioz, eremu hauetako ikasleak zailtasunak handiak izan ditzakete euskararen jabekuntza on bat lortzeko. Egunero ordu bateko klase bat jasota soilik, hizkuntza berri bat ikasteko eta hura modu egokian erabiltzeko gai izango ginateke helduok? Hori bera eskatzen ari diogu gure ikasleei. Honek ekar dezakeen ondorioa oso larria izan daiteke: hizkuntza menperatzen ez duen ikasleak nekez bereganatu ahalko du beste irakasgaietako edukirik.

Egoera horren aurka egiteko hezkuntza-sistemak duen baliabide garrantzitsu bat Gorputz Hezkuntza da, irakasgai honetan ematen direlako beste irakasgaietan ematen ez diren egoera diskurtsiboak. Esate baterako, jolasak eta kirolak praktikatzearen ondorioz ematen direnak: estrategiak adostu, lagunak animatu, ikasleen arteko bat-bateko elkarrizketak, etab. Egoera guzti horiek areagotzen dute ahozkoatasunaren alderdi informala lantzeko aukerak, beste irakasgaietan baino askoz gehiago, alegia.

Irakasgai honek eskaintzen digun aukera hau aprobetxatzea berebiziko garrantzia hartzen du gure testuinguruan, euskarak eskolatik at duen presentzia txikiaren ondorioz, hizkuntzaren alderdi informalean aurkitzen direlako ikasle hauen euskararekin lotutako zailtasun handienak. Hala ere, ezin dugu ahaztu Gorputz Hezkuntzan egoera formalak ere badaudela, eta hauek lantzea ere ezinbestekoa dela. Hortaz, Gorputz Hezkuntzako irakasgaiak ahozkoatasunaren bi alderdiak lantzeko aukera ematen digu, berbazko elkarrekintza-egoerak eta testu-genero egituratuak ekoizpenak. Gure proposamen didaktikoak helburu horretan lagundu nahi du, hau da, ahozkoatasunaren bi alderdiak lantzeko beharrez. Hala ere, ezin dugu ezkutatu ahozkoatasunaren alderdi informalaren lanketan jarri dugula esfortzurik handiena, gure testuinguruetako ikasleek alderdi honetan agertzen dituztelako zailtasun handienak.

Laburbilduz, informazio eta datu guzti horiek berreskuratu ondoren, lan honen hipotesia baieztatu dezakegula ondoriozta daiteke. Izan ere, gaur egun Gorputz Hezkuntzak hizkuntza komunikaziorako gaitasunak txertatzeko duen aukera ezin hobe xahutzen ari da, irakasgai honetan gaitasun horren presentzia soilik irakasgaiaren helburu orokorretan, gaitasunetan eta edukietan aurki dezakegulako, baina ez, ordea, maila bakoitzaren ikasturteko programazioan. Azken finean, hizkuntzaren lanketa ikasturteko programazioan lekua izateak berebiziko garrantzia dauka, bertan finkatzen baitira Gorputz Hezkuntzako egunerokotasuna eta ikasleek jasoko dituzten saio praktikoen nondik-norakoak. Aurrerantzean hizkuntza eta, bereziki, euskararen ahozko lantzeko Gorputz Hizkuntzak dituen aukeren inguruko zenbait ondorio aterako ditut, hezkuntzarekin lotura zuzena dutenak.

Egia da Gorputz Hezkuntzako saioetan ematen diren hizkuntza egoerak ez direla ematen beste irakasgai gehienetan eta horren ondorioz, irakasgai honek aukera ezin hobe duela hizkuntzaren ahozko lantzeko. Hala ere, arloak eta irakasgaiaren teorikotasun-praktikotasun mailak ez du baldintzatzen ahozko hizkuntza erabiltzeko aukerak ezta hizketa motaren nolakotasuna (formala/ez formala). Arloa edozein delarik, ahozko komunikazioa lantzeko aukerak sortzen dira, bai elkarrekintza espontaneo bidez baita komunikazio egoera kokatuen bidez ere, testu-generoak erabiltzeko orduan, esate baterako (Garcia-Azkoaga, Bengoetxea eta Zabala, argitaratze prozesuan). Ahozko lantzeko erlazio handiagoa dauka jarduerak didaktikoak bideratzeko moduarekin eta irakas-estiloarekin, hots, irakaslearen erantzukizunean dago ahozko komunikazioa lantzeko aukerak bultzatzea. Horren ondorioz, irakaslearen irakas-estiloa gero eta kooperatiboagoa denean, aukera gehiago ezartzen dira ahozko adierazpenerako.

Ahozko hizkuntza lantzeko estrategia didaktikoak garatzeko orduan, hizkuntzako bi norabideak izan behar ditugu kontuan: berbazko elkarrekintza-egoerak eta testu-genero egituratuen ekoizpenak. Aurretik ikusi dugun moduan, estrategia hauek lantzeko hizkuntzakoak ez diren eta hizkuntzakoak diren irakasgaien eta irakasleen arteko elkarlana bultzatzea ezinbestekoa bihurtzen da. Azken finean, hori izan behar da gure lurraldean hezkuntza eleaniztun baten eredu integratu eta integrala lortzeko bidea (Garcia-Azkoaga, Bengoetxea eta Zabala, argitaratze prozesuan).

Laburbilduz, Nafarroako testuinguru soziolinguistikoa aztertuta eta ikasleek euskarazko jabekuntzan dituzten zailtasunak ikusita, nahitaezkoa bihurtzen da euskarazko ikaskuntzan lagunduko duten metodologia eta proposamen didaktiko berriak aurkitzea. Zailtasun horien ebazpenean jardun beharko luke Nafarroako Gobernuak eta bere Hezkuntza departamentuak, Eusko Jaurlaritzak Ikastetxeetako Hizkuntza Proiektuak berritzeko bultzatu dituen proposamen bezalakoak aurrera eramanez. Hala ere, Nafarroako ikastetxe eta irakasleak ezin dira besoak uztarturik gelditu eta ikasle hauen euskarazko jabekuntzan lagunduko duten proposamenak eta jarduerak bultzatu behar dituzte. Asko daukagu irabazteko, euren eskuetan dagoelako euskarak ikasle askorengan eragiten duen iritzia eta jarrera aldatzea, etorkizunean hizkuntza polit eta berezi honekin lotura positiboa izan dezaten.

8. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Lan honetatik ateratako ikaspen nagusia da Nafarroako ikasle gehienak euskarazko ahozko gaitasuna lantzeko beharra dutela eta Horretarako Gorputz Hezkuntzako irakasgaiak aukera ezin hobe duela. Egoera hau bereziki garrantzitsua bihurtzen da euskarak presentzia gutxiago duen eremu horietan; hots, eremu mistoa eta eremu ez-euskalduna. Izan ere, gaur egungo hezkuntza-sisteman idatzizko dimentsioak ahozkoak baino garrantzi handiagoa izaten jarraitzen du. Horrek dakar ikasleek euskara erabiltzeko zailtasunak edukitzea euren egunerokotasunean, bai eskolan baita hortik kanpo ere.

Etorkizunera begira funtsezkoa izango da, hizkuntza arazorik gabe erabiltzeko gai izango diren hiztun osoak izatea. Euskarak hiztun horien behar komunikatibo guztiak asetu behar ditu, arazorik gabe erabili dezaten. Hortaz, ahozko gaitasunaren lanketa funtsezkoa izango da helburu hauek lortze aldera. Ikerketa honetan behin baino gehiagotan aztertu dugun moduan, hizkuntza bat ondo menperatzen ez duen subjektua, nekez hartuko du hizkuntza hori lasaitasunez erabiltzeko joera. Garrantzitsua ikusten dut ekartzea Kike Amonarrizek (2015) euskararen erabileraren inguruan egiten zuen baieztapen hau: “azkenik, ezin dugu ahaztu, hurrengo belaunaldiak erabileran jauzi kuantitatibo eta kualitatiborik ematen ez badu, azken hamarkada hauetan lortutakoa galtzeko arriskuan egon gaitezkeela”.

Horretarako, ahozko gaitasuna, komunikaziorako gaitasuna, edo orokorrean esanda, euskararen erabilera bera, jarri behar ditu erdigunean. Eta ahalik eta adostasunik eta inplikaziorik zabalena lortu ikastetxeetan eta hezkuntza komunitate osoan, arduradun nagusienengandik hasita. Helburu horren lortetan asko lagunduko luke Nafarroako Gobernuak eta bere Hezkuntza Departamentuak proposamenak eta laguntzak eskaintzea, esate baterako, Ikastetxe bakoitzak bere hizkuntza proiektu propioa sortzeko inizatiba. Horrela, ikastetxeko irakasgai guztietan hizkuntza lantzeko estrategia amankomunak hartuko liriteke, irakasle guztiak hizkuntzaren ikaskuntzaren erantzukizuna beregain hartuz.

Egia da azken urteotan areagotu egin dela ahozko hizkuntza ikaskuntzaren objektu bihurtzeko aldarrikapena (Dolz eta Schneuwly 1997, 1998; Schneuwly, 1996...) eta ahozko hizkeraren irakaskuntzari lekua egiten hasi zaiola eskoletako egitarauetan (Nonnon, 2000 eta Rispaill, 2007; in Garcia-Azkoaga, Imaz, Diaz de Gereñu eta Alegria, 2010). Hala ere, ikerketa honetan ikusi ahal izan dugu norabide horretan eman diren aurrerapausoak nahikoak ez direla eta hezkuntza-sistemaren eragile guztiek esfortzu gehiago jarri behar dutela ahozko gaitasunaren ikaskuntzan. Horren harira, Kike Amonarrizen (2015) baieztapenarekin bat egiten dut: “ahozko gaitasuna da etorkizunak duen erronka nagusietako bat”.

9. BIBLIOGRAFIA

- Agirreazkuenaga, I. eta Prieto, E. (2009). Euskara erabiltzeko euskaldunon eskubidea: Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian. *Revista Vasca de Administración Pública (RVAP)*, 83, 15-43.
- Amonarriz, K. (2015). Ahozko komunikazioa Soziolinguistikaren ikuspuntutik. *Ahozko komunikazioa eskolan: azken hamarkadako ikerketa eta esperientzia berriak*.
- Espainiako Gobernua, (2001). *Estatuko Aldizkari Ofiziala (EAO)*, 222, 34734-34736.
- Etxebarria, M. (2015). La situación sociolingüística de la lengua vasca hoy: País Vasco y Navarra. *CONFLUENZE*, 7 (2), 13-45. Bilbao: Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila (2016). Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua egiteko gida. *Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1*. Vitoria-Gasteiz
- Fernandez, D. (2014). Zein da Hizkuntzaren lekua Heziketa Fisikoan? Heziketa Fisikoaren eta Hizkuntzaren arteko artikulazioaren aztarnak. *Jakingarriak, Kirol Hezitzailea*. 74, 38-45. Mondragon Unibertsitatea.
- Fernandez, D. eta Azpeitia, A. (2016). Heziketa Fisikoko bi irakasleren jardueraren azterketa: jakintza-arloaren eta hizkuntzaren arteko artikulazioaren aztarnak. *TANTAK*, 28 (2), 21-60. Mondragon Unibertsitatea.
- Garcia-Azkoaga, I.M. (2001). Hizkuntza eta Curriculumeko beste arloak. *Hik Hasi, Udako Topaketak – Hizkuntza Idatzia*, 8, 79-84.
- Garcia-Azkoaga, I.M. (2001). Un lugar para la didáctica del oral en el lenguaje de la ciencia y de la tecnología. *Comunicaciones – Didáctica de la Lengua y la Literatura*, 614.
- Garcia-Azkoaga, I.M. eta Zabala, J. (2012). Multilingüismo e interacción en la escuela. Perspectivas para el análisis de la dimensión comunicativa de la lengua. *Argitalpen Zerbitzua / Servicio Editorial, D.L.* 61-78. Bilbao: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Garcia-Azkoaga, I.M.; Bengoetxea, O.; Zabala, J. (argitaratze prozesuan). Ahozko euskararen erabilera eskolak, Gako zenbait irakasleen prestakuntzarako, in Krajewska, Santalizia eta Zuloaga (Coords.): *Fontes Linguae Vasconum 50 urte: Ekarpak berriak euskararen ikerketari / Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca*.
- Garcia-Azkoaga, I.M.; Imaz, A.; Diaz de Gereñu, L. eta Alegria, A. (2010). Ahozko komunikazioaren irakaskuntza bigarren hezkuntzako testuliburuetan. *TANTAK*, 22 (1), 7-42.

- Idiazabal, I. eta Garcia-Azkoaga, I.M. (2005). Euskal testuen azterketa eta euskararen irakaskuntza. Ikerketa eta gogoetak. *Ikastaria*, 14, 5-7.
- Manterola, I. (2010). Euskarazko murgilketa Haur Hezkuntzan: Euskara-Gaztelania elebitasunaren azterketa. Ahozko ipuinen analisi diskurtsiboa eta didaktikoa. *Europako Doktorego Tesia*. Vitoria-Gasteiz: Universidad del Pais Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Nafarroako Gobernua (Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua), Eusko Jaurlaritz (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) eta Euskararen Erakunde Publikoa - Office Public de la Langue Basque (2017). *VI. Inkesta Soziolinguistikoa. Nafarroako Foru Komunitatea*. Iruñea: Nafarroa.
- Nafarroako Gobernua, (1982). Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeagotzeko Lege Organikoa (NFEBHLO). *Nafarroako Aldizkari Ofiziala*, 106. Iruñea: Nafarroa.
- Nafarroako Gobernua, (1986). Euskararen Foru Legea. *Nafarroako Aldizkari Ofiziala*, 154. Iruñea: Nafarroa.
- Nafarroako Gobernua, (2014). Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako Curriculum. *Nafarroako Aldizkari Ofiziala*, 174. Iruñea: Nafarroa.
- Nafarroako Gobernua, (2015). Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculum. *Nafarroako Aldizkari Ofiziala*, 127. Iruñea: Nafarroa.
- Nafarroako Gobernua, (datarik gabe). *Educacion.navarra.es*. Iruñea: Nafarroa. Hemendik berreskuratua:
https://www.navarra.es/home_eu/Navarra/Asi+es+Navarra/Autogobierno/El+Amejoramiento.htm
- Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua, (datarik gabe). *Educacion.navarra.es*. Iruñea: Nafarroa. Hemendik berreskuratua: <https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/modelos-linguisticos>
- Sagasta, P. (2001). Hizkuntzen Curriculum bateratua. *Hik Hasi, Udako Topaketak – Hizkuntza Idatzia*, 8, 22-29.
- Sanchez, J.M. (datarik gabe). Qué dicen los estudios sobre el Aprendizaje Basado en Proyectos. *Actualidadpedagogica.com*. Hemendik berreskuratuta: http://www.estuaria.es/wp-content/uploads/2016/04/estudios_aprendizaje_basado_en_proyectos1.pdf
- Sancho, N. (2013). *Convivencia del euskera y el castellano en las aulas de la Comunidad Foral de Navarra*. Iruñea: Universidad Pública de Navarra - Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

ERANSKINAK

1. DOKUMENTUA: Gorputz Hezkuntzako irakasgaiaren helburu orokorrak, gaitasunak eta edukiak Mendillorri BHI

1.2. OBJETIVOS DE ETAPA

Con la LOMCE, desaparecen los objetivos generales de área, quedando únicamente los de etapa. A continuación exponemos los objetivos que se pretenden alcanzar durante toda la etapa educativa. Haremos referencia al Decreto Foral 24/2015, de 22 de abril, por el que se establece el currículo de las enseñanzas de la ESO en la Comunidad Foral de Navarra. Dicho decreto establece en su artículo 4 que la ESO contribuirá a desarrollar en el alumnado las capacidades que le permitan:

- a) Asumir responsablemente sus deberes, conocer y ejercer sus derechos en el respeto a los demás, practicar la tolerancia, la cooperación y la solidaridad entre las personas y grupos, ejercitarse en el diálogo afianzando los derechos humanos y la igualdad de trato y de oportunidades entre mujeres y hombres, como valores comunes de una sociedad plural y prepararse para el ejercicio de la ciudadanía democrática.
- b) Desarrollar y consolidar hábitos de disciplina, estudio y trabajo individual y en equipo como condición necesaria para una realización eficaz de las tareas del aprendizaje y como medio de desarrollo personal.
- c) Valorar y respetar la diferencia de sexos y la igualdad de derechos y oportunidades entre ellos. Rechazar la discriminación de las personas por razón de sexo o por cualquier otra condición o circunstancia personal o social. Rechazar los estereotipos que supongan discriminación entre hombres y mujeres, así como cualquier manifestación de violencia contra la mujer.
- d) Fortalecer sus capacidades afectivas en todos los ámbitos de la personalidad y en sus relaciones con los demás, así como rechazar la violencia, los prejuicios de cualquier tipo, los comportamientos sexistas y resolver pacíficamente los conflictos.
- e) Desarrollar destrezas básicas en la utilización de las fuentes de información para, con sentido crítico, adquirir nuevos conocimientos. Adquirir una preparación básica en el campo de las tecnologías, especialmente las de la información y la comunicación.
- f) Concebir el conocimiento científico como un saber integrado, que se estructura en distintas disciplinas, así como conocer y aplicar los métodos para identificar los problemas en los diversos campos del conocimiento y de la experiencia.
- g) Desarrollar el espíritu emprendedor y la confianza en sí mismo, la participación, el sentido crítico, la iniciativa personal y la capacidad para aprender a aprender, planificar, tomar decisiones y asumir responsabilidades.
- h) Comprender y expresar con corrección, oralmente y por escrito en la lengua castellana, en su caso en lengua vasca, textos y mensajes complejos e iniciarse en el conocimiento, la lectura y el estudio de la literatura.
- i) Comprender y expresarse en una o más lenguas extranjeras de manera apropiada.
- j) Conocer, valorar y respetar la geografía, la historia y la cultura universal, en general, y de España, en particular.
- k) Conocer la geografía e historia de Navarra y la diversidad de lenguas, culturas y costumbres que la hacen peculiar.
- l) Conocer y aceptar el funcionamiento del propio cuerpo y el de los otros, respetar las diferencias, afianzar los hábitos de cuidado y salud corporales e incorporar la educación física y la práctica del deporte para favorecer el desarrollo personal y social. Conocer y valorar la dimensión humana de la sexualidad en toda

su diversidad. Valorar críticamente los hábitos sociales relacionados con la salud, el consumo, el cuidado de los seres vivos y el medio ambiente, contribuyendo a su conservación y mejora.

- m) Apreciar la creación artística y comprender el lenguaje de las distintas manifestaciones artísticas, utilizando diversos medios de expresión y representación.

Comentar que los **objetivos de curso** se especificarán en el apartado correspondiente de la presente programación a cada uno de los mismos.

1.3. COMPETENCIAS CLAVE

Tal y como señala la Orden ECD 65/2015 “*las competencias clave son aquellas que todas las personas precisan para su realización y desarrollo personal, así como para la ciudadanía activa, la inclusión social y el empleo*”. Del mismo modo indica que las competencias clave del currículo son 7. En este apartado indicamos cómo esta programación contribuye a la consecución de las mismas:

COMUNICACIÓN LINGÜÍSTICA

- Comunicarse a través del vocabulario básico recogido en la documentación de cada unidad didáctica.
- Comprensión lectora al leer artículos relacionados con los contenidos del curso
- Intercambios comunicativos y comunicación no verbal
- Exposiciones orales en relación con los contenidos trabajados en los diferentes cursos
- Elaboración de trabajos escritos

MATEMÁTICA, CIENCIA Y TECNOLOGÍA

- Controlar la intensidad del esfuerzo físico en % en función de la FC. Máx.
- Cálculos matemáticos en torno a la FC, puntuaciones, medidas...
- Efectos de la actividad física en el organismo, hábitos saludables
- Conocimiento del entorno y uso responsable del mismo
- Utilización correcta de la brújula
- Interpretación de datos, secuencias, orden, cantidades...

COMPETENCIA DIGITAL

- Buscar información sobre contenidos concretos de las unidades didácticas en la red
- Uso de plataformas virtuales para la visualización de vídeos, compartir documentos...
- Uso de aplicaciones móviles
- Uso de nuevas tecnologías de la información y comunicación: programas específicos Power Point, Excel... páginas web asociadas con los contenidos de la asignatura, aplicaciones, participación en blog de E. F., utilización de cámara de video o de fotos como herramienta de clase...

APRENDER A APRENDER

- Adquirir habilidades y destrezas deportivas básicas que le permitan en el futuro mayor variedad de actividad físico deportiva
- Regular el propio aprendizaje y la práctica de actividad física en el tiempo libre

- Utilización de herramientas: habilidades y destrezas deportivas, sistemas de entrenamiento de capacidades físicas básicas que le permitan en el futuro realizar mayor variedad de actividad física-deportiva.
- Aprendizaje comprensivo/significativo (saber el por qué se hacen dichas propuestas, cuál es su sentido, qué se pretende; saber identificar dificultades y buscar soluciones para mejorar).

SOCIAL Y CÍVICA:

- Cumplir con las normas y reglamentos de los juegos y deportes.
- Asumir responsabilidades
- Cuidado de instalaciones, materiales y entorno
- Realizar trabajos en equipo, asumiendo responsabilidades, aceptando normas de organización democráticas y respetando las limitaciones de compañeros y adversarios.

AUTONOMÍA E INICIATIVA PERSONAL

- Compromiso personal de mejora en condición física y técnicas deportivas.
- Colaborar con los compañeros en la solución de situaciones problema
- Regulación emocional
- Organización y realización de competiciones deportivas internas de clase o centro (recreos) y colaboración con los profesores para la participación en otras actividades externas.
- Adoptar decisiones que contribuyan a la autosuperación, perseverancia y actitud positiva.

CONCIENCIA Y EXPRESIONES CULTURALES

- Adquirir una actitud abierta y respetuosa para actividades deportivas desconocidas, actividades expresivas, danzas, juegos tradicionales...
- Creación de montajes grupales
- Tratamiento del deporte como fenómeno social y cultural a través del análisis crítico
- Asistencia a espectáculos deportivos, juegos tradicionales, actividades expresivas o danzas y realización de trabajo de análisis crítico de: riqueza expresiva, creatividad, violencia deportiva...

1.4. CONTENIDOS

1.4.1. Contenidos específicos del área de E. F.

En el DF 24/2015, se establecen los bloques de contenido para cada uno de los cursos de la ESO, asociados a unos criterios de evaluación y estándares de aprendizaje evaluables. Trabajaremos sobre este aspecto en el apartado dedicado a cada uno de los cursos, revisando en primer lugar los **bloques de contenidos** para posteriormente hacer una distribución temporal de los mismos en **Unidades Didácticas**, poniendo como ejemplo una tabla de unidad didáctica.

1.4.2. Contenidos interdisciplinarios

A lo largo del curso se pretende fomentar el trabajo interdisciplinar con el profesorado de otras áreas teniendo en cuenta los contenidos curriculares similares.

BLOQUE CONTENIDOS		ASIGNATURAS RELACIONADAS	CONTENIDOS RELACIONADOS
B L O Q U E 1	A. Motrices individuales, oposición, oposición-cooperación	Matemáticas	Sistemas de puntuación, trayectorias, mediciones de campos de juego
		Lengua castellana y literatura	Nuevo vocabulario, trabajos escritos, exposiciones orales
		Historia y Geografía	Origen de los juegos y deportes
		Inglés	Uso de términos anglosajones
		Tecnología	Autoconstrucción de materiales, Uso de aplicaciones móviles, uso de plataforma virtual <i>“Edmodo</i>
	A.M. Índole artística o de expresión	Música	Ritmo, tiempo, soporte musical, coreografías
		Lengua castellana y literatura	Expresión corporal, lenguaje no verbal
	A.M. Adaptación al entorno	Biología y Geología	Respeto al entorno, posibilidades que ofrece, impacto de las actividades físico deportivas
		Ed. Plástica y visual	Dibujo de mapas, circuitos, recorridos
B L O Q U E 2	Condición Física y Salud	Biología y Geología	Conocimiento del cuerpo humano, Hábitos higiénicos y saludables, funcionamiento y reacción ante la actividad física.
		Matemáticas	Frecuencia cardíaca, gráficas, tests, cálculo de tiempos, distancias

1.4.3. Elementos transversales

La Educación Física es una materia privilegiada para tratar elementos transversales debido a las relaciones tan especiales que se producen y las diferentes situaciones lúdicas, estéticas y utilitarias ante las que se sitúa el alumnado a lo largo de las sesiones. Basándonos en el Artículo 7 del DF24/2015, indicamos a continuación aquellos elementos transversales que más se ven reflejados en la presente programación:

- **Comprensión lectora y expresión oral y escrita:** lectura de artículos, redacción de textos, debates, reflexiones escritas, exposiciones orales...
- **Comunicación audiovisual y TIC:** uso de aulas virtuales, aplicaciones móviles, visionado de vídeos, documentales, películas...
- **Emprendimiento:** creación de montajes grupales, trabajo en equipo, autosuperación, perseverancia, actitud positiva, autoevaluación, coevaluación...
- **Educación cívica y constitucional:** respeto de derechos y libertades, establecimiento de normas, prevención de conflictos, resolución de los mismos, igualdad de género, coeducación, no discriminación de personas con discapacidad...
- **Respeto al entorno y desarrollo sostenible:** respeto y cuidado del entorno, educación del consumidor...
- **Educación para la salud:** fomento de hábitos saludables.

2. DOKUMENTUA: Gorputz Hezkuntzako programazioa Mendillorri BHIko 2. mailan

GORPUTZ HEZKUNTZA					
Irakaslea:	Webgunea: https://goo.gl/eCckDo			Ikasturtea:	2018_2019
Maila:	2.	Saioak asteko:	2	Ikasgai mota:	DERRIGORREZKOA
HELBURU OROKORRAK, EDUKIAK, GAITASUNAK:					
<ul style="list-style-type: none"> Ikusi mintegiaren programazioa: http://iesmendillorribhi.educacion.navarra.es/blogs 					
EDUKIEN DENBORALIZAZIOA:					
1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. ebaluazioa	
<ul style="list-style-type: none"> EGOERA FISIKOA: Garapena eta balorazioa. BEROKETA OROKORRA KIROL JOKOAK. 		<ul style="list-style-type: none"> ERRITMOA eta GORPUTZ ADIERAZPENA II. MALABAREAK II. TALDE KIROLA: BOLEIBOLA. 		<ul style="list-style-type: none"> BEISBOLA ESKUBALOIA I. PALAK I. 	
METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK:					
<p>Metodologikoki Gorputz Hezkuntzaren irakasgaia definitzen duten funtsezko ideiak: aniztasun arreta (erritmo eta berezitasunak kontutan izan); lan autonomoa (ikasken ikasi) eta talde lana; funtsezko gaitasunak lantzeko planteamenduak eta proposamen integratzaileak; ekintzaren inguruko hausnarketa egitea; analisi kritiko eta arduratsu; parte-hartze aktiboa; hobetzeko ahaleginak erakustea; nor bere buruarengan konfiantza izatea; begirune eta erantzunkizuna erakustea.</p>					

KALIFIKAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA
<p>Kalifikazio sistema:</p> <p>KONTZEPTUAK: NOTAREN % 10a.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Azterketa teorikoak (batezbesteko egiteko gutxienez 3 puntu). - Koaderno eta fitxak. - Idazlanak. <p>PROZEDURAK: NOTAREN % 40a.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Proba tekniko eta fisikoak. <p>JARRERAZKOAK: NOTAREN % 50a.</p>

- Klaseetan ahalegin eta parte-hartze aktiboa.
- Irakasgaia gainditzeko gutxiengo etortzea %85a izanen da.
- 4 alditan ezinbestekoa den materiala, ez bada ekartzen, ezin da gainditu (aldatzeko arropa).
- Begirune izan, ikaskide eta materialarekiko (erabilera desegokia dela medio, hautsitako materiala ikasleak berrituko du).
- Puntualtasun, saiakera, arreta, portaera eta euskararen erabilera, kontuan hartuko dira eta islatu ere, nota ezberdinen bidez.
- 3 kaleratze edo 6 negatiboekin, ezin da gainditu.

Errekuperazio sistema:

- Ebaluazio bakoitzaren berreskurapena egingen da.

Ekaineko ebaluazioa arruntaren frogetan urtean zehar gainditu ez diren edukiak eta probak egingen dira. Froga hauetan minimoa lortu beharko da atal bakoitzean.

Ikasturte amaierako nota 3 hiruhilabeteen batazbesteko aritmetiko egiten aterako da, beti ere ebaluazioan 4 bat lortu baldin bada.

Ez-ohiko errekeruperazioa:

EKAINA: Ikasle bakoitzari idatziz zehaztuko zaio, prestatu behar diren idazlan, azterketa eta proba guztiak, berreskuratu ahal izateko. Ikasleak ikasturte osoa berreskuratu beharko du eta ez-ohiko ebaluazioko gehienezko nota 5 izanen da.

PENDIENTEAK: Ikasturteko lehengo bi ebaluazioak gainditzen badira iazko irakasgaia gainditzen da (errekuperatzen da) automatikoki.

JARDUERA OSAGARRIA: ROCOPOLIS.

OHARRA: Programatutako edukiak baldintzatuak izango dira, material eta instalazioen

3. DOKUMENTUA: Gorputz Hezkuntzako programazioa Mendillorri BHIko 4. mailan

GORPUTZ HEZKUNTZA				
Irakaslea:	Nerea Lizasoain		Ikasturtea:	2018_2019
Maila:	4.	Saioak asteko:	2	Ikasgai mota: DERRIGORREZKOA
HELBURU OROKORRAK, EDUKIAK, GAITASUNAK:				
<ul style="list-style-type: none"> Ikusi mintegiaren programazioa: http://iesmendillorribhi.educacion.navarra.es/blogs 				
EDUKIEN DENBORALIZAZIOA:				
1. Ebaluazioa	2. Ebaluazioa		3. ebaluazioa	
<ul style="list-style-type: none"> EGOERA FISIKOAREN GARAPENA ETA BALORAZIOA ERRESISTENTZIA (metodo zatituak). BOLEIBOLA II. 	<ul style="list-style-type: none"> INDARRA. ESKUBALOIA II BANAKAKO KIROLAK: ERRAKETA ETA PALAI BBB (RCP) 		<ul style="list-style-type: none"> KIROL EGOKITUA KIROL JARDUERAK ETABERAIEN ANTOLAMENDUA. LEHIAKETAK. GORPUTZAREN ADIERAZPENA ETA ERRITMOA: AKROSPORT. 	
METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK:				
<ul style="list-style-type: none"> Metodoogikoki Gorputz Hezkuntzaren irakasgaia definitzen duten funtsezko ideiak: aniztasun arreta (erritmo eta berezitasunak kontutan izan); lan autonomoa (ikasten ikasi) eta talde lana; funtsezko gaitasunak lantzeko planteamenduak eta proposamen integratzaileak; ekintzaren inguruko hausnarketa egitea; analisi kritiko eta arduratsu; parte-hartze aktiboa; hobetzeko ahaleginak erakustea; nor bere buruarengan konfiantza izatea; begirune eta erantzunkizuna erakustea. 				

METODKALIFIKAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA:
<p>Kalifikazio sistema:</p> <p>KONTZEPTUAK: NOTAREN % 20a.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Azterketa teorikoak - Koaderno eta fitxak - Idazlanak <p>Proposatzen diren jarduera edo lan guztiak egitea derrigorrezkoa da eta gutxienez 3 puntu lortu behar dira ikasgaiko beste atalekin batera batzbestekoa egin ahal izateko.</p> <p>PROZEDURAK: NOTAREN % 40a.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Proba tekniko eta fisikoak.

JARRRERAZKOAK: NOTAREN % 40a.

Klaseetan ahalegin eta parte-hartze aktiboa.

Irakasgaia gainditzeko gutxiengo etortzea %85a izanen da.

4 alditan ezinbestekoa den materiala ez bada ekartzen, ezin da gainditu (aldatzeko arropa).

Begirune izan, ikaskide eta materialarekiko (erabilera desegokia dela medio, hautsitako materiala ikasleak berrituko du).

Puntualtasun, saiakera, arreta, portaera eta euskararen erabilera, kontuan hartuko dira eta islatu ere, nota ezberdinen bidez.

3 kaleratze edo 6 negatiboekin, ezin da gainditu.

Errekuperazio sistema:

Ebaluazio bakoitzaren berreskurapena egingen da.

Ekaineko ebaluazioa arruntaren frogetan urtean zehar gainditu ez diren edukiak eta probak egingen dira. Froga hauetan minimoa lortu beharko da atal bakoitzean.

Ikasturteko nota 3 ebaluazioetan lortutako noten batzbestekoarekin aterako da, baldin eta ebaluazio bakoitzean gutxienez 4 bat lortzen den. Horrela ez bada, ikasleak ez-ohiko errekeruperazioa egin beharko du.

Ez-ohiko errekeruperazioa:

EKAINA: Ikasle bakoitzari idatziz zehaztuko zaio, prestatu behar diren idazlan, azterketa eta proba guztiak, berreskuratu ahal izateko. Ikasleak ikasturte osoa berreskuratu beharko du eta ez-ohiko ebaluazioko gehieneko nota 5 izanen da.

PENDIENTEAK: Ikasturteko lehengo bi ebaluazioak gainditzeko badira iazko irakasgaia gainditzeko (errekuperatzen da) automatikoki.

JARDUERA OSAGARRIA: Orientazio froga (zehazteke)

OHARRA: Programatutako edukiak baldintzatuak izango dira, material eta instalazioen arabera. Beraz, aldaketak egon daitezke.